

Memoriari, Hezkuntza Historikoari eta Bakearen Eraikuntzari buruzko koadernoak

5. zk.

Memoriaren historizazioa

Euskadiko gazteekin egindako
ikaskuntza-komunitate baten
esperientziaren azterketa

Izaskun Sáez de la Fuente Aldama
Ángela Bermúdez Vélez
Jesús Prieto Mendaza

Memoriari, Hezkuntza Historikoari eta Bakearen Eraikuntzari buruzko koadernoak, 5. zk.

1. edizioa, 2020ko abendua

© Azaleko irudia: www.shutterstock.com

© Publicaciones de la Universidad de Deusto
Posta kutxa 1 — 48080 Bilbao
posta elektronikoa: publicaciones@deusto.es

ISBN: 978-84-1325-125-7

Esker ona

Esker bereziak eman nahi dizkiegu Ikaskuntza Komunitatean parte hartzera ausartu ziren gazte guztiei, beren gogoeta eta galderekin lan hau eta gure ikaskuntza bera elikatu baitzituzten.

Euskadiko Historiaren Irakaskuntzari eta Bakearen Eraikuntzari buruzko Ikaskuntza Komunitatea Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza izendunaren laguntzari esker egin zen. Hain zuzen ere, honako xede honetarako eman zen laguntza: «Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren, Deustuko Unibertsitatearen, Mondragon Unibertsitatearen eta Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko oinarrizko hitzarmena, 2017-2020ko Bizikidetzeta eta Giza Eskubideen Planari euskal unibertsitateek egin diezaioketen ekarpen partekatua diseinatu, garatu eta gauzatzeko».

Aurkibidea

Sarrera	5
Ikaskuntza-komunitatearen faseak	9
1. fasea. Memoria pertsonalak eta kolektiboak aztertzea	11
1. saioa. Ikaskuntza-komunitatearen proiektuaren sarrera eta partehartzaileen aurkezpena	11
2. saioa. Memoria pertsonalaren atalak biltzea	12
3. saioa. Memoria pertsonalen eta memoria kolektiboen arteko kontrastea	20
2. fasea. Biktimen ikuspuntura hurbiltzea	25
4. saioa. Motibazio politikoko indarkeriaren biktima baten testigantza	25
3. fasea. Memoriaren historizazioa	33
5. saioa. Aspaldi zaharreko gatazkaren kontakizuna berreraikitzea	34
6. saioa. Gatazkaren jarraitutasunaren eta indarkeriaren behar- raren suposizioen azterketa kritikoa	44
7. saioa. Euskal herriaren homogeneotasunaren eta espainiar he- rriarekiko polaritatearen suposizioen azterketa kritikoa	62
Ikaskuntza-komunitatearen esperientziari buruzko balioespena	76
Gazteen balorazioak	77
Talde dinamizatzailearen balorazioa	83
Ondorioak	86

Sarrera

2019ko urriaren eta 2020ko ekainaren artean, Deustuko Unibertsitateko Etika Aplikatuko Zentroak (EAZ) eta Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) gaztez osatutako ikaskuntza-komunitate bat gidatu zuten, aztertzeko gazteei zer galdera eta gogoeta bururatzen zaizkien Euskadin azken mendearen erdian bizi izandako motibazio politikoko indarkeriari buruz eta iragan hori belaunaldi berriei irakasteko moduari buruz, gazteen ikaskuntza formaleko eta ez-formaleko esperientziak kontuan hartuta. «Zer da Euskadin bizi izandako indarkeriari buruz jakin nahi duzun eta galdetzeraz ausartzen ez zaren hori?» izenburu erakargarriari jarraikiz, parte-hartzaileek beren memoria pertsonalen eta kolektiboen azterketa kritikoa egin zuten. Hiru koadernotan bildu dira ikaskuntza-komunitatearen emaitzak. Koaderno hau hiru horietatik bigarrena da, eta esperientziaren sistematizazioa jaso da bertan. Lehenengoan, hurbilketa kontzeptuala egin da hezkuntza historikoak indarkeria deslegitimatzeke egindako ekarpenera, eta hirugarrenean, Euskadin bizi izandako indarkeriazko iraganari buruzko irakaskuntza lantzeko gomendio eta baliabide pedagogikoak jaso dira.

Ikaskuntza-komunitatearen proiektua euskal gizartearentzat funtsezkoa den une historiko batean sortu da, indarkeria terrorista desagertu ondoren, alegia. Une honetan, eztabaida sozialaren ardatza da aztertzea nola landu behar den modu justu batean bake eta adiskidetasunezko etorkizuna. EAZn zein EGKn, azterlanak egin, askotariko gogoetak argitaratu eta ekimenak bultzatu dira, arreta gure herrialdean

gauzatutako indarkerian eta haren ondorioetan jarrita. Gaur egun, bi erakundeek kezka ageri dute, ikusi baitute gizarteko sektore zabal batzuk, eta ez bakarrik indarkeria gehiago edo gutxiago legitimatu duten taldeak, dirudienez, gertatutakoa ahazteko gogoz daudela, «orrialdea pasatzeko» gogoz. Egoera jakin batzuetan hobe izaten da hala egitea, baina, lehenbizi, ongi idatzi behar da orrialde hori, eta, gero, arretaz irakurri behar da, arrazionalki eta emozionalki barneratzeko. Esparru horretan, ekimen hau dinamizatu duen taldeko kideei belaunaldi berriekin lotutako hainbat galdera etortzen zaizkie burura: Zer dakite gazteek euskal gatazkaren historiari eta Euskadin azken mendearen erdian bizi izandako indarkeriari buruz? Non eta nola ikasi dute? Zer galdera bururatzen zaizkie? Zer jakin nahi dute? Zer behar dute, iraganaren azterketa adierazgarria eta esanguratsua izan dadin? Nola lagundu dezake hezkuntza historikoak indarkeriaren deslegitimazioa lantzen?

Premisa horiei jarraikiz, honako hauek izan ziren gazteekin egin-dako ikaskuntza-komunitatearen xedeak:

1. Aztertzea zer ezagutza dituzten eta zer galdera bururatzen zaizkien gazteei Euskadin bizi izandako indarkeriari buruz.
2. Argitzea zer erreakzio eta gogoeta izaten dituzten gazteek, euskal gatazkari eta indarkeriari buruz dituzten memoriak diziplina historikoaren elementuekin kontrastatzen direnean.
3. Indar-ideiak identifikatzea, indarkeria deslegitimatzen lagunduko duen euskal gatazkaren historia irakasteko proposamen pedagogiko bat egituratzeko balioko dutenak. Proposamen horrek honako hauek bildu behar ditu: a) gazteen kezkak eta beharrak; b) kontzientzia historikoaren berezko kategoriak eta tresnak; eta c) gogoeta etikoaren eta hezkuntza historikoaren integrazioa.

Nork hartu zuen parte?

Ikaskuntza-komunitatea 17 urtetik 25era bitarteko 11 ikaslek osatu zuten; horietatik, 5 gizonetzkoak ziren, eta 6 emakumezkoak. Horietako hamar unibertsitate-ikasketak egiten ari ziren, UPV/EHU edo Deustun, eta bat, Batxilergoko bigarren maila. Jakintza-arloak askotarikoak ziren, arlo hauetako ikasleak baitziren: Gizarte Hezkuntza eta Gizarte Lana, Hizkuntza Modernoak, Historia, Zientzia Politikoak, Zuzenbidea,

Nazioarteko Harremanak eta Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza (EAZ). Gainera, era askotako profilak zituzten, euskal gizarteko ideologiaren adierazgarri, beren familiek, kuadrillek edo ingurune sozialek eraginda. Saioek aurrera egin ahala, 4 parte-hartzailek saioetara joateari utzi zioten zenbait arrazoiengatik, ordutegiak bateratzeko zailtasunengatik zein komunitatearen beraren muineko planteamenduarekin deseroso sentitzeagatik, besteak beste.

Taldea osatzen zuten gazte gehienak ia batere indarkeriarik gabeko testuinguru batean hazi dira, eta beren belaunaldiaren bereizgarria da hori. Dena den, horrek ez du esan nahi gatazkaren ondorioak ez direnik presente egon (neurri handiagoan edo txikiagoan) gazte horien bizitzetan edo inguruko bizitzetan.

Proiektua dinamizatzen zuen taldea EAZrekin eta EGKrekin lotutako 6 pertsonaz¹ osatuta zegoen; prestakuntza edo esperientzia zuten filosofian, etikan, soziologia politikoan, antropologian eta hezkuntzan, eta ibilbide akademiko eta profesional zabalak hezkuntza etikoaren, bake-rako hezkuntzaren eta hezkuntza historikoaren alorretan.

Aurkezpen-saioan, parte-hartzaileek azaldu zuten zergatik parte hartu nahi zuten ikaskuntza-komunitatean, eta zer espero zuten. Oro har, gehiago jakiteko jakin-mina adierazi zuten, ordura arte ezagutzeko aukerarik izan ez zuten historiaren zati bat entzun ahal izateko.

«Gaiari buruzko beste pertzepzio batzuk ezagutu nahi nituzke» (6. I.). «Euskadin bizi bazara, iristen zaizun gai bat da gatazkarena» (7. I.). «Historiako irakaslea izan nahi dut» (4. I.). «30 urtetik gorakoen ikuspegia ezagutu nahi nuen. Nire ustez gatazka ez da bukatu, aitzitik, egungoa da; gehiago ikasi nahiko nuke ikuspegi etikoari buruz» (1. I.). ««Euskal gatazkaren tabuari» buruz ikastea; izan ere, gazteok ez dakigu asko gaiari buruz, eta ez gara eroso sentitzen horri buruz hizketan. Beste pertsona batzuek nola bizi izan duten jakin nahi dut, eta argudioetan oinarritutako iritzi kritiko bat osatzen ikasi» (3. I.). «Ikasi egin nahi dut, eskolan irakatsi digutena ez baita egokia» (9. I.). «Kontakizun kontraesankorrak iritsi zaizkit, eta, horregatik, ikasi nahi nuen, eta nire ideiak ordenatu [...] ez dadila gai honi buruz hitz egiteko beldur gehiagorik egon» (5. I.). «Nire iritzia hobeki osatu nahi dut, eta jakinarazteko gai izan, beste batzuek interesa izan dezaten» (9. I.).

¹ Ángela Bermúdez Vélez, Galo Bilbao Alberdi, Leire Ostiza Múgica, Cristina Pena Mardaras, Jesús Prieto Mendaza eta Izaskun Sáez de la Fuente Aldama.

Zergatik ikaskuntza-komunitate bat?

Ikaskuntza-komunitatearen metodologia aukeratu genuen, irakasleen eta ikasleen arteko jakintza-transmisio hutsean oinarritutako irakaskuntza-ereduetatik urrundu nahi genuelako. Gainera, esplorazio-metodologia bereziki egokia da gai berriei heltzeko; izan ere, gai horietan ez dago adostasun sozial argirik, eta beharrezkoa da hainbat eragileren ezagutzak eta beharrak elkarrizketan jartzea. Ikaskuntza-komunitatearen egitura irakasleen eta ikasleen arteko belaunaldi-arteke topaketa dialogiko gisa planteatu zen. Horiek jakintza, diskurtso, ikuspuntu, bizipen eta esperientzia askotarikoak zituzten, euskal gatazkaren eta indarkeriaren historia nola irakatsi behar den ulertzeko esanguratsuak zirenak. Zenbait memoria pertsonal eta kolektibo bildu ostean, talde dinamizatzaileak tailer espezifikoekin diseinua egin zuen, memoria horiek diziplina historikoaren jakintzekin kontrastatzeko. Azkenik, gure proposamen pedagogikoari buruzko atzerailkadura emateko eskatu genien gazteei.

Ikaskuntza-komunitate guztietan, funtsezkoa da elkarrizketa-baldintza batzuk bermatzea, ikuspegiaren komunikazioa zintzoa, arina eta eraikitzailea izan dadin. Hori horrela, lehenengo saioan parte-hartzaile guztiek hausnartu zuten zer behar zuen bakoitzak gai horiei buruz lasai hitz egin ahal izateko, eta zer interakzio-estilok zailtzen duten hori. Hortik abiatuta, honako oinarritzko arau hauek adostu zituzten:

- Hitzik gabeko komunikazioa zaintzea, keinu bidezko lengoia erasokorrik ez erabiltzeko.
- Enpatiaz jardutea.
- Hitz egiteko txandak errespetatzea, eta labor hitz egitea.
- Pertzepzio edo sentimendu pertsonalak adieraziz gero, gainerakoek okertzat ez jotzea.
- Kontuan hartzea guztiok ditugula aurreiritziak, bizi dugun testuinguruaren ondorioz.
- Gainerakoek argudioak onartzeko prest egotea.
- Onartzea guztiok dugula zalantza egiteko eskubidea.
- Iritziz aldatzeko aukera ematea norbere buruari eta gainerakoiei.
- Pentsatzea eztabaidaren xedea ez dela bestea garaitzea, iritzia elkartrukatzea baizik.
- Ez hartzea kritikak modu pertsonalean.
- Norberaren iritzian osagai afektiboak edo emozionalak identifikatzea.
- Gertakarietan edo ebidentzietan oinarritutako argudioak eta argudio subjektiboak bereiztea.
- Desadostasunak inor mindu gabe adieraztea.
- Ez pentsatzea norbera egia osoaren jabe denik.

Ikaskuntza-komunitatearen faseak

Ikaskuntza-komunitatearen saioak hiru fasetan antolatu ziren: 1) memoria pertsonalak eta kolektiboak aztertzea; 2) biktimen ikuspuntura hurbiltzea; eta 3) memoriaren historizazioa.

Jarraian, hiru faseak aurkezten dira, bakoitzaren zentzua azalduta. Saio bakoitzean landutako helburuak eta jarduerak deskribatuko dira, eta ikasleen gogoetak nabarmenduko.

1. KOADROA

Ikaskuntza-komunitatearen faseen eta saioen laburpena

Faseak	Saioak	Jarduerak
1 Memoria pertsonalak eta kolektiboak aztertzea	1. saioa. Proiektuaren aurkezpena	<ul style="list-style-type: none"> — Proiektuaren aurkezpena. — Aurkezpen pertsonalen txanda, motibazioak eta itxaropenak azaltzeko. — Komunitatearen funtzionamendurako arauak adostea.
	2. saioa. Memoria pertsonalaren atalak biltzea	<ul style="list-style-type: none"> — Euskal gatazkari buruzko ideien eta emozioen inguruko elkar-irizketa isila. — «Maletaren» dinamika, euskal gatazkari buruzko memoria pertsonaleko objektuak eta elementuak sozializatzeke.
	3. saioa. Memoria pertsonalen eta memoria kolektiboaren arteko kontrastea	<ul style="list-style-type: none"> — Denbora-lerro kolektibo bat finkatzea, memoria pertsonalak euskal gatazkako gertakari historiko esanguratsuen arabera kokatzeko. — Memoria kolektiboko elementuak aurkeztea (irritzi-artikuluak, prentsa-oharrak, abestien letrak, etab.), euskal gatazkari buruzko memoria kolektiboaren kontakizun desberdinak agerian uzteko. — Elementu horiek memoria pertsonalekin kontrastatzea.
2 Biktimen ikuspuntura hurbiltzea	4. saioa. Motibazio politikoko indarkeriaren biktima baten testigantza	<ul style="list-style-type: none"> — Indarkeriaren biktima baten testigantza entzutea. — Harekin hitz egitea.
3 Memoriaren historizazioa	5. saioa. Aspaldi zaharreko gatazkaren kontakizuna islatzen duten zenbait iturri aurkeztea.	<ul style="list-style-type: none"> — Aspaldi zaharreko gatazkaren kontakizuna islatzen duten zenbait iturri aurkeztea. — Iturrien analisi kritikoa egiteko talde-lana. — Aspaldi zaharreko gatazkaren kontakizunaren egitura narratiboaren berreraikuntza kolektiboa.
	6. saioa. Gatazkaren jarraitutasunaren eta indarkeriaren behararen hipotesien azterketa kritikoa	<ul style="list-style-type: none"> — «Historia de los vascos en 10 minutos» bideoa ikustea eta azterketa kritikoa egitea. — Raúl López Romoren (2019) «El mito atroz de una rebelión secular: Carlistas, gudarís y etarras» artikulua analizatzea eta eztabaia. — Gerra Zibilean eta gerraostean Euskadin eta Espainiako beste eskualde batzuetan izandako errepresioarekin lotutako multikausalitate-gaitan sakontzea.
	7. saioa. Euskal herriaren homogeneotasunaren eta espainiar herriarekiko polaritatearen suposizioen azterketa kritikoak	<ul style="list-style-type: none"> — ETAn zein iritzi publikoan denboran zehar gertatutako eraldaketei eta hausturei eta biktimen ikusgarritasunari buruzko azalpena. — Zenbait eragile indarkeriaren erabilerari buruz zituzten ikuspuntuak eta iritziak jasotzen zituzten zenbait iturri aurkeztea. — Iturrien analisi kritikoa egiteko talde-lana. — Ikaskuntza-komunitatearen amaiera eta agurra.

Iturria: Egileek egina.

1. fasea

Memoria pertsonalak eta kolektiboak aztertzea

Hiru saiotan banatutako ikaskuntza-komunitatearen lehenengo fase honen xede nagusia izan zen parte-hartzaileen memoria pertsonalak eta kolektiboak aztertzea, kontuan hartuta horiek pisu handia dutela identitateen eraikuntzan eta negoziazioan. Gure asmoa zen gazteek ziotena entzutea, eta esperientzia, ikuspuntu eta kontakizun ugari daudela ohartzeko aukera ematea haiei.

1. saioa. **Ikaskuntza-komunitatearen proiektuaren sarrera eta parte-hartzaileen aurkezpena (2019ko urriaren 23a)**

Helburuak:

1. Parte-hartzaile gazteei proiektua aurkeztea, eta haiek elkar eza-gutzea eta komunitatearen talde dinamizatzaileko kideak eza-gutzea.
2. Gazteak zer itxaropenekin zetozen eta proiektuan parte hartzeko zerk erakarri zituen jakitea.
3. Arau batzuk adostea, parte-hartzaile guztiek onartuak, une horretatik aurrera horien arabera funtziona zezan ikaskuntza-komunitateak.

Saioari hasiera emateko, aurkezpen-txanda bat egin zuten, bai irakasleek, bai ikasleek. Ikasleek, gainera, azaldu zuten zergatik erabaki zuten ikaskuntza-komunitatean parte hartzea (ikus *Parte-hartzaileen profila*, Sarreran), eta taldeak funtzionamendu-arauak adostu zituen (ikus *Zergatik ikaskuntza-komunitate bat?*, Sarreran). Gero, talde dinamizatzaileak proiektua gidatzen zuten bi erakundeak aurkeztu zituen, bai eta proiektuaren zentzua azaldu eta erabiliko zen metodologia dia-logikoa jakinarazi ere.

Saioari amaiera emateko, EGKren *Gazteon Aukera* dokumentala laburbiltzen duen bideoa proiektatu zen. Bideoan, Euskadiko gazte batzuek azken hamarkadetan bizi izandako indarkeriari buruzko gogoe-tak, informazioa, sentipenak eta abar azaltzen dituzte. Bideoa ikusi ostean, parte-hartzaileei eskatu zitzaaien hausnartu zezatela nola ikus-ten zituzten beren buruak gazte horiek egindako planteamenduekin al-deratuta, eta galdetu zitzaaien ea zerk eman zien atentzio gehien. Oro har, ados agertu ziren honako honekin: gazteek badute euskal gataz-karen historia ezagutzeko interesa, eta zailtasunak izaten dituzte es-kolan eta espazio ez-formaletan, horietan isiltasun-giroa baita nagusi. Halaber, adierazi zuten zekiten gutxi hori gertuko zirkuluak, familiak edo kuadrillak esandakoa zela, edo beren kontura entzun edo irakurri zutela sare sozialetan edo komunikabideetan. Hortik abiatuta, zenbait gai sortu ziren, hala nola barkamenaren esanahiari eta barkamenak da-muarekin duen loturari buruzkoak.

2. saioa. **Memoria pertsonalaren atalak biltzea** **(2019ko azaroaren 2a)**


Helburuak:

1. Gazteek Euskadin azken hamarkadetan gertatutakoaz zer daki-ten aztertzea, aurrez azterketa historikorik egin gabe.
2. Gazteek «euskal gatazka» delakoari buruz bildutako «memoria-atal» askotarikoak biltzea.
3. Antzekotasunak eta desberdintasunak identifikatzea pertsonak adierazitako «memoria-ataletan» (pertsonala, kolektiboa eta historikoa), eta nondik sortu diren eta nola transmititzen diren aztertzea.

Saioari hasiera emateko, «elkarrizketa isilaren» dinamika egin zen: xedea ez zen gaiak agortzea, mahaigaineratzea baizik. Horretarako, gazteei eskatu genien bi galderari erantzuteko, banaka: euskal gatazkari buruz hitz egiten entzuten dudanean, zer sentitzen dut? Eta zer pentsatzen dut? Bolumen baxuan «Lágrimas al viento»² musika-pieza entzuten zuten bitartean, parte-hartzaileek beren erantzunak idatzi zituzten zenbait koloretako postitetan. Gero, horma batean jarritako bi kartoi mehe handitan itsatsi zituzten (batean, sentitzen zutena, eta bestean, pentsatzen zutena). «Elkarrizketa isila» dinamikan zehar, parte-hartzaile guztiak horma-irudien inguruan ibili ziren; ginerako parte-hartzaileek idatzitakoa irakurri zuten, eta irakurritakoari buruz sortzen zitzaizkien oharrak edo galderak idatzi zituzten. Taula honetan jaso ditugu adierazitako sentimenduak:

2. KOADROA

Euskal gatazkari buruz hitz egiten entzuten dudanean, zer sentitzen dut?



Iturria: Egileek egina.

² Gontzal Mendibilek 11-M-ko terrorismoaren biktimei dedikatu zien abestia.

«Elkarrizketa isilean» zehar, zenbait ohar edo gogoeta egin ziren kartoi mehean jasotako hitzen zentzuari buruz, eta gaika sailkatu ditza-kegu horiek³:

1. Tabua familian eta kuadrillan

«Euskal gatazkari buruz zerbait entzuten nuen bakoitzean, amak esaten zidan ez hitz egiteko, ez esateko ezer horri buruz». «[] Nire amak, ni babestearren, esaten zidan isiltzeko, edo iskanbiletan ez sar-tzeko».

«Ez dugu gaiari buruz hitz egiten, ez eztabaidatzearren. Edo inork ez gaitzan etiketatu».

«Ezin dut nire lagunekin euskal gatazkari buruz hitz egin, eztabai-datzen bukatu gabe».

«Heziketan dago irtenbidea, ez isiltasunean».

«Euskal gatazka entzuten dudanean, beldurra sentitzen dut; ez-kutuko gaia izan da beti, eta ezin da horri buruz hitz egin».

«Ezin da libreki hitz egin zure iritziari buruz, beldurragatik».

2. Porrota

«ETA existitu izana gure gizartearen porrota dela iruditzen zait».

3. Era askotako indarkeriak eta haien biktimen aitorten desberdinak

«Sufrimendu asko daude, guztiak ez daudelako aitortuta. ETaren biktimak behar baino aitortuago daude, eta beste indarkeria batzuek aitortu gabe jarraitzen dute». «Beste zer indarkeria? GAL, Estatu euskal herritarren aurka». «Nor dira biktimak?» «Pertsonak bitarteko gisa erabili dira, helburu jakinetarako». «Nire ustez, Giza Eskubideak izan behar ditugu helburu».

4. Nazionalismoen pertzepzio desberdina: euskal nazionalismoa eta espainiar nazionalismoa

«Nazionalista espainiarra izatea gaizki dago, baina euskal nazio-nalista izatea onartuago dago, eta horrek min ematen dit. Batez ere, bidaiatzen duzunean».

³ Dinamikaren izaeragatik, ekarpenak anonimoak izan ziren, eta, beraz, ezin dira identifikatu.

«Pena ematen dit nazionalismoa hain sendo ikusteak; gizartean irekita dagoen zauria izaten jarraitzen du».

«Euskara da gure lurralde aske bakarra» >⁴ «ni ez naiz euskaraz mintzatzen» > «euskara elementu kulturala da, batzen gaitu, ez gaitu banantzen, eta aniztasuna dakar».

5. Barkamena

«Barkatu edo onar daiteke gertuko norbaiten heriotza?»

6. Preso politikoak eta dispertsioa

«Preso politikoak eta ez-politikoak etxera. Zergatik? Ez da larritzat jotzen?».

7. Minak hor jarraitzen du


«Ez da iragana; oraindik sua piztuta dago, arrastoa oso handia da (gorrotoa, mina, kalte konponezinak)». «Ez dut euskal gatazka lehen pertsonan bizi izan, baina sentitu izan dut oraindik hemen jarraitzen duen eta gelditu den tentsioa».

«Sumina eta pena sentitzen ditut inolako fruiturik gabe sortu den min guztiagatik».

«Elkarrizketa isilaren» bigarren zatian, parte-hartzaileei galdetu zitzaizen zer pentsatzen zuten euskal gatazka adierazpena entzuten zutenean. Taula honetan jaso ditugu adierazitako pentsamenduak:

⁴ Ikur horrek pertsona batek aurreko beste batek esandakoaz egindako iruzkina adierazten du.

3. KOADROA

Euskal gatazkari buruz hitz egiten entzuten dudanean,
zer pentsatzen dut?

Iturria: Egileek egina.

Berriz ere, zenbait ohar edo gogoeta egin ziren kartoi mehean jasotako hitzen zentzuari buruz, eta gaika sailkatu ditzakegu horiek:

1. Indarkeria zergatik ez zen Trantsizioan amaitu?

«Zergatik jarraitu zuen Trantsizioaren ostean; izan ere, ez zen Euskadiren eta Espainiaren arteko gatazka bat bakarrik, gai soziala zen. Frankismoaren garaiko zauriek irekita jarraitzen zuten».

«Eta zergatik ez zen bukatu demokrazia iritsi zenean?»

«Zergatik ez zen guztia bukatu amnistiarekin?»

«Nolakoa izango zen dena, ETAk Trantsizioaren garaian utzi izan balitu armak?»

2. Gatazkaren jatorria eta jarraitutasuna

«Nire ustez euskal gatazka ez da ETA bakarrik». «Espainiar ez sentitzearena, zanpatuak sentitzearena, oso aspalditik dator». «Gatazka egon zen karlistaldietan, baina, nire ustez, hori ez da euskal gatazkaren jatorria». «Oso zaila da zehaztea noiz hasi zen euskal gatazka, gauza asko elkartzen baitziren koktelean: gizartea, errepresioa, asmo desberdinak eta amaiera zehaztea ere zaila izango da».

«90eko hamarkadako errealitate bati buruz ari garenez, iruditzen zaigu guztia iraganeko zerbait dela, eta ez duela garrantzirik hortik harago». Baina euskal gatazka gure mugetatik kanpo ere ezagutzen dute».

«Noiztik? 77ko amnistia baino lehenago edo geroago?» > «1936an hasi zen; halaberrez hasi zen».

«Zergatik transmititu da gorrotoa belaunaldien artean? Gerra Zibilean bezala da; gaur oraindik Franco defendatzen dute, haien familielik gauza bera egin zutelako. Esan al daiteke nor izan zen lehenengo harria bota zuena? Noiz esan dezakegu hasi zela?».

«Nire egunerokotasunean badaude iraganaren (gatazkaren) az-tarnak, pintadetan, arkitekturan ».

3. Indarkeria elikatzea eta atzeraelikatzea

«Indarkeriaren zikloa: batek eraso egitean, besteak eraso egiten du. Zertarako? Gatazka ala sarraskia?».

«Alderdi politiko separatista batzuk desagerrarazteko gogoak eragin al dezake ETA itzultzea, zentsurarekiko erantzun gisa?».

«Espainiak estatu-terrorismoa eta arduragabekeria politikoa sortzen ditu. Euskal gatazka tresna politiko gisa erabiltzea».

«Albistegiak etortzen zaizkit burura; atentatuak eta komunikatuak agertzen ziren, presoan aldeko manifestazioak, *kale borroka*».

«Zergatik erantzun zioten indarkeria terroristari estatu-terrorismoarekin?».

4. Nazionalismoak

«Euskal nazionalismoa edo zerbaiten kide sentitzea? Gauza bera da, antzekoa da, ez?» > «Ez, ez da gauza bera, Salvini eta Marie Le Pen ere nazionalistak dira».

«Euskara erabiltzea euskal herritarren zati bat baztertzeko».

5. Sufrimendua, dispertsioa indarkeria aktibo gisa eta argitu gabeko hilketak

«5.000 pertsona baino gehiago torturatuta, 30 preso baino gehiago hilda, presoan 16 senide hilda bidaietan, eta Espainiako estatuak sufrimendua sortzen jarraitzen du, espetxe-politikaren bidez. Bestalde, ETArekin 300 hilketatik gora argitu gabe».

6. Pertsonak sufritzen

«Preso politikoak, erbesteratuak, bizitza hautsiak».

«Jende asko poztu zen heriotza batzuekin. Nork du bizitza bat kentzeko eskubidea?».

«Beren minarekin justifikatu baino lehen (mendeku-ekintzak), zer argudio zituzten? Alderdiek uste al dute sortutako min horrek guztiak merezi izan zuela?»

«Zer egin da biktimen alde? Zergatik erabiltzen dituzte jaurtitzeko arma gisa?».

7. Estatuaren kontrako borroka

«[] Estatuaren kontrako borroka» > «Protestak gobernu-modu bat aldatzeko badira, zenbait manifestazio-modu daude; nire ustez, erailtzea ez dator bat zure ustez bidegabea edo desegokia denaren kontra borrokatzearekin».

«Zentzurik izan zuen? Bai. Ez» > «Zer egoeratan egongo ginatete hori gertatu ez balitz?».

8. ETA

«ETAren jarduera armatua; dirudienez, horretara mugatzen da gatazka». «1977tik aurrera hitz egiten ari bagara, ETA da pertsona gehien hil zituen taldea, askogatik; 800etik gora demokratian».

«Militanteek zergatik bete zituzten erailtzeko aginduak?».

9. Independentzia

«Belaunaldiak aldatu egiten dira, baina ideiek bizirik jarraitzen dute. Independentzia».

Ondoren, «maletaren» dinamika egin zuten. Aurreko saioan parte-hartzaileei eskatu zitzaien aukeratu eta eraman zezatela euskal gatazkarekin lotutako memoria pertsonaleko elementuren bat. Edozein objektu sinboliko izan zitekeen, beren esperientzia zuzena edo oinordetzan jaso adierazten zuena (adibidez, pertsonen, graffiten, leku enblematikoen eta abarren argazkiak, liburuak, filmak, abestien letrak, musika-taldeak, etab.). Saio horretan, pertsona bakoitzak maleta batean sartu zuen bere memoria-atala, eta, gero, hortik atera, eta gainerako parte-hartzaileei azaldu zien zer esanahi zuen, eta zergatik aukeratu zuen. Adibide gisa, talde dinamizatzaileko kide batek Amin Maaloufen *Identitate hiltzaileak* liburua aurkeztu zuen, eta azaldu zuen hori aukeratu zuela izugarri beldurtzen zutelako gorrotoa eta indarkeria sustatzen zituzten identitate esentzializatuek edo amorratuek.

4. KOADROA

Ikasleen memoria pertsonalen atalak

Memoriaren atala	Esanahiaren arrazoiketa
Graffitien argazkiak	«Euskal gatazkarekin lotutako argazkiak ekarri ditut: Sestao, amnistia, atxilotuak askatu. Deustu, Presoak etxera... ETArekin izan nuen lehenengo kontakua: gogoratzen naiz nire aitarekin nindoala, eta, trenera hurbildutakoan, «GORA ETA» bat ikusi nuen. Hor nabaritu nuen zerbait bazegoela, ez galdetu horrelakorik... Portugaleteko udaletxean «ETA no, ETA ez» jarzen zuen pankarta bat ikusi nuen (2. I.).
Jantziren bat	«2011ko Amurrioko jaiak. Buru-estalkia zeramaten pertsona batzuek peginak bota zituzten, "GORA ETA" esaten zutela» (1. I.).
Telebistako irudiak	«14 urte nituenean, ez zen gaiari buruz hitz egiten, baina zerbait txarra zen. Telebistan irudi hau agertu zen: ETako hiru kide, buru-estalkia jarrita, mahai batean. Komunikatu bat da; nire gurasoek ez zekiten niri zer esan, baina hori gogoratzen dut» (9. I.).
Espainiako bandera duen eskumuturreko bat	«Ez dut euskal indarkeria pertsonalki bizi izan, baina sentitu izan dut tentsio hori. Espainiako txapelketa. Irabazi egin genuen. Inork ez zuen domina hartu nahi. Zer nazka, Espainia! [] Hiruko erregela bera erabiliz, Euskadiko banderak ETA ekarri beharko liguke gogora» (5. I.).
Argazkia: parte-hartzailea ageri da pankarta bati eusten, eta pankartan bere amaren argazkia ageri da; ETako presoan aldeko manifestazio bat da.	«Hiru urte nitueneko argazkia: aitaxorekin nago, eta "amatxo askatu" dioen pankarta bati eusten ari naiz [] Nire gurasoek espetxean sortu ninduten [...] Nik betidanik izan dut harremana euskal gatazkarekin. Mexikon jaio nintzen» (11. I.).
Prentsako ebakinak eta abestien letrak	«Zenbait irudi. 11M ez zuen ETAk egin, Al Kaidak baizik. Gandiara joaten nintzen oporretan, eta gaizki pasatzen nuen; izan ere, euskalduna izateagatik, gainerako haurrek terrorismoarekin lotzen ninduten. <i>Egunkariaren</i> itxiera, <i>Presoak etxera</i> , Otegi preso politikoa (Bai/ez). Abestiak: «ETA deja alguna discoteca». «Fuimos ikastoleros», «Sarri Sarri», Barrikada «no hay tregua ETA ETA ETA» (3. I.).
Bere aitona idatzitako prentsa-oharra, bere osaba zaharraren erailketari buruzkoa (parte-hartzaileak artikulua osoa irakurri zuen gainerakoan aurrean)	«Nire aitona eta bere anaiak legioan izena eman zuten. Karrera militarra egin zuten. Nire aitona goi-mendietako tropekin ibili zen. Trantsizioan, Eusko Jaurlaritzak nire osaba zaharrari proposatu zion Ertzaintzako superintendente izatea. Teniente koronela zen armadan, eta bere kideen gorrotoa jaso zuen euskal poliziako buru bihurtzeagatik, eta, aldi berean, Ertzaintzako kideen gorrotoa, espainiar armadatik zetorrelako. ETAk bomba bat jarri zion nire osaba zaharrari eta hil egin zen, 1985ean. Nire aitona gorrotoak janda hil zen; barkatu nahi izan zuenean, inork ez zuen haren barkamena jaso nahi izan. Oraindik argitu gabeko 350 kasu daude. Nire familiako zati bat aberzalea da, eta beste bat, ez-abertzalea. Familiako zer zati maite dut?» (7. I.).

Memoriaren atala	Esanahiaren arrazoiketa
Ettxerat elkartearen ikurra duen zapi bat	«Ettxerat elkartearen zapia. Nire oroipena familiarra da; nire aita sindikalista zen, eta negoziazio guztietan egon zen, eta preso politikoa izan zen. Memoria integrala?». (10. l.).
Argazki familiarra	«Anastasio Aguirre nire birraitona zen. Kirikiño batailoian borrokatu zen, eta gudaria izan zen Espainiako Gerra Zibilean. Pozoitutako putzu batetik ura edanda hil zen. Argazkian, <i>Eguna</i> irakurtzen ageri da, guztiz euskaraz idatzitako lehenengo egunkaria» (4. l.).
Film bat	« <i>El pico</i> , 1983. Film horrek markatuta utzi ninduen» (2. l.).

Iturria: Egileek egina.

Saioaren amaieran, parte-hartzaile guztiek adierazi zuten jarduerak oso hunkituta utzi zituztela. Beren esperientzia pertsonalekin konektatu behar izan zuten, eta aurkeztu zituzten «memoria-atalak» berengana nola eta zergatik iritsi ziren hausnartu; baina, horrez gainera, beren memoriak taldeko gainerako kideenekin alderatu zituzten. Tailer honen bidez, beren bizitza pertsonala eta barneko sentimenduak azaldu zituzten jendaurrean, eta horrek une gogorrek eragin zituen, intentsitate emozional handikoak, ahots desberdinak sortu zirelako, batzuk beste batzuen aurkakoak, eta, ondorioz, errespetuz, islatuta gelditu zirelako euskal gizarteko haustura nagusietako batzuk.

3. saioa. **Memoria pertsonalen eta memoria kolektiboen arteko kontrastea (2019ko abenduaren 10a)**

Helburuak:

1. Loturak ezartzea parte-hartzaileen memoria pertsonalen eta memoria kolektiboen artean.
2. Memoria kolektiboen pasartearen arteko adostasun- eta desadostasun-puntuak identifikatzea.
3. Parte-hartzaileen memoriak denbora-lerro historiko batean antolatzea.

Saio honetan, Alejandra Londoño Bustamanteren⁵ parte-hartze be-
rezia izan genuen; EAZk gonbidatu zuen, publiko orokorrari irekitako
hitzaldi bat eman zezan, «Por qué, qué y cómo enseñar sobre la histo-
ria del pasado violento. Reflexiones desde la experiencia colombiana»
(Zergatik, zer eta nola irakatsi indarkeriazko iraganaren historiari buruz.
Kolonbiako esperientzian oinarritutako gogoetak) izenburupean.

Bezperan gazteekin egindako saioan, Kolonbiako gatazka arma-
tuaren memoria historikoaren pedagogia bat diseinatzen eta sustatzen
izandako bere esperientziari buruz hitz egin zuen laburki Alejandrak.
Azaldu zuen, nahiz eta Kolonbiako eta Euskadiko kasuak oso desber-
dinak izan, belaunaldi berriei indarkeriazko iraganari buruz irakasteko
erronkak antzeko galderak eta beharrak eragiten dituela bi lekuetan.
Adibidez, komeni da hausnarketaz aztertzea zer tentsio sortzen diren
memoria pertsonalak esparru pribatutik atera eta eztabaida publikoan
agertzen direnean, memoria kolektiboen aniztasuna eta antagonismoa
agierian gelditzen baita horrelakoetan.

Aurreko saioan partekatutako memoria pertsonalen elementuak
kontuan hartuta, Alejandrak aipatutako gaia lantzeko, talde dinami-
zatzailleak memoria kolektiboko atalen bilduma bat aurkeztu zien gaz-
teei: iritzi-artikuluak, prentsa-oharrak, abestien letrak eta beste zenbait
iturri, gaur egun euskal gizartean dauden zenbait memoria kolektibo-
ren kontakizunak mahaigaineratzen zituztenak. Zehazki, honako iturri
hauek aurkeztu zituzten:

- «Víctima aboga por un relato del terrorismo empático que logre
el nunca más» idazkia. Sara Buesaren testigantza bati buruzko
artikulua. *La Vanguardia*, 2019/10/24.
- Edurne Portela, «Encuentros posibles. El dolor y la memoria con-
viven con la generosidad y la esperanza». *El País-Columna Ideas*
Ahora que lo Pienso, 2019/10/01.

⁵ Alejandra Londoño Kolonbiako Egiaren Batzordeko Gatazka Armatuari, Kulturari eta
Gizarteari buruzko ikerketa-taldeko kidea da. Zenbait ikerketa egin ditu hezkuntza-sistemak
Kolonbiako gatazka armatuaren egia argitzeko bidean duen egitekoari buruz. Horren aurretik,
Kolonbiako Memoria Historikoaren Zentro Nazionalako (CNMH) Pedagogia Alorrean lan
egin zuen, Kolonbiako gatazka armatuaren historia irakasteko hezkuntza-baliabideen eta
irakaskuntza-prestakuntzaren arduradun gisa.

- Erredakzioa, «El Gobierno vasco pide que se cancele la exposición del etarra Jon Bienzobas», *El País*, 2019/10/08.
- Ludger Mees, «Hay un conflicto entre Euskadi y España, pero también es cierto que lo hay entre los propios vascos». Humberto Unzueta egindako elkarrizketa, *Diario de Noticias de Álava*, 2019/10/20.
- B. Ferreras, «Tanto cuesta decir que matar estuvo mal? Urkullu emplaza a EH-Bildu a realizar una mirada crítica del terrorismo de ETA y dar pasos adelante», *El Mundo*, 2019/10/10.
- Mikel Segovia, «Otegi asegura que los *ongi etorri* son munición política para desgastar al PSOE», *El Independiente*, 2019/08/05.
- Barrikadaren abestia, *No hay tregua*.
- Imanolen abestia, *Ausencia*, Lope de Vegaren olerki batean oinarritua.
- Héroes del Silencioaren abestia, *Maldito duende*.
- Ken Zazpiren abestia, *Malen*.
- Kortaturen abestia, *Sarri sarri*.

Gero, bikoteka jarri ziren, eta iturrietako batzuk eman zitzaizkion bikote bakoitzari. Lehenbizi, banaka irakurri zituzten, eta iturri bakoitzak euskal gatazkari eta indarkeriari buruz zuen iritzi esplizitua edo inplizitua identifikatzen ahalegindu ziren, bai eta irakurtzen ari zirenen eta beren memoria pertsonalen arteko lotura-puntuak ere. Gero, iturri bakoitzaren eduki hori irakurri ez zuten gainerako kideei aurkezteko eskatu zitzaien. Hirugarrenik, jarduera bat egin zuten talde osoarekin, iturrien arteko antzekotasunak eta desberdintasunak eta gazte bakoitzak ematen zizkien esanahiak bisualki adierazteko. Azpimarragarria da Barrikadaren abestiaren letra irakurtzeak eragindako erantzuna. 1. I., 2. I. eta 3. I. ikasleek esan zuten ezagutzen zutela eta entzuna zutela (baita abestu ere) dantzaldietan edo herriko jaietan; guztiz normalizatu zuten, eta ez zuten inoiz gogoeta egin letraren esanahiari buruz⁶. Alabaina, 7. I. ikasleak lehen aldiz irakurri zuen, eta harrিতa gelditu

⁶ «Es el juego del gato y el ratón/ Tus mejores años clandestinidad/ No es muy difícil claudicar/ Esto empieza a ser un laberinto/ ¿Dónde está la salida?/ Estás asustado, tu vida va en ello, pero alguien debe tirar del gatillo/ Tu infantil sueño de loco no es respuesta demencial/ Este juego ha terminado mucho antes de empezar/ Anónimo luchador, nunca tendrán las armas/ Estás asustado, tu vida va en ello, pero alguien debe tirar del gatillo/» (une horretan, musikaren erritmoari jarraituz, jendeak «ETA, ETA, ETA» abestu ohi du).

zen indarkeria hain esplizituki legitimatzen zuen letra bat hain normalizatuta egoteaz eta jai-giroan asko entzuteaz.

«Bai, abesti hori abestu izan dugu dantzaldietan, noski baietz (1., 2. eta 3. l.). «Ez, nik ez dut inoiz entzun abesti hori, ez zait ezaguna egiten. Nire ustez, abestia egin zuenak gertatutakoaren historia idatzi nahi du» (7. l.).

Saio honetako bigarren dinamikan, denbora-lerro batean antolatu zituzten memoria pertsonalak eta kolektiboak. Ikasle bakoitzari orri bat eman zitzaion, ardatz kronologikoa bakarrik zuena markatuta. Eskatu zitzaion bakoitzak idatz zitzala hor bere bizitza pertsonaleko gertakariak (jaiotza, lehenengo eskola-eguna, jaunartzea, etab.), gatazkari buruzko memoria pertsonaleko pasarteak eta indarkeriak beren bizitzetan utzitako aztarnak, bai eta memoria kolektiboko pasarteren batzuk ere, garrantzitsuak iruditzen zitzaizkienak. Gero, talde dinamizatzaileak denbora-lerro handi bat zuen horma-irudi batean jarri zuen, eta, gazte bakoitzak bere denbora-lerroa aurkeztu ahala, hor idatzi zituzten gertakari pertsonalak eta historikoak. Azkenik, antzekotasunak eta desberdintasunak kontrastatu zituzten.

Memoria pertsonalei eta kolektiboei dagokienez, batzuek beraiek jaiio baino lehen gertatutako une garrantzitsuak edo gertakariak idatzi zituzten, familiaren, lagunaren edo komunikabideen bidez ezagutzen zituztenak, hala nola familiako senideren baten atxiloteta edo biktimaren baten erailketa. Beste batzuek, berriz, beraiek jaiio ondoren gertatutako eta zuzenean eragin zieten gertakariak jaso zituzten, edo kontziente izan zirenak, hala nola 2006ko T4ko atentatua, bai eta hezkuntza formalaren esparruan landuak zituzten eta gatazkari buruzko gogoeta eragin zieten lanak edo proiektuak ere. Gertakari historikoei dagokienez, ikasle batzuek beraiek jaiio baino lehenagoko gertakariekin hasi zituzten beren denbora-lerroak, baita ETA sortu baino lehenagoko gertakariekin ere. Lerro indibidualak talde-lerro batean bateratzean, guztiei atentzioa eman zien ikusteak nahasmendu handia zutela, eta ez zutela ezagutza handirik, eta gazteek ez zituztela gertakari historiko asko gogoratzen. Ikasleetako batek Karlistaldiak aipatu zituen, baina ez zekien noiz gertatu ziren. Batzuek 36ko gerra aipatu zuten, eta Carrero Blancoren erailketa (1973), beste batzuek Burgosko prozesua (1970), eta, guztiek, diktaduraren amaiera, Francoren heriotzarekin etorri zena

(1975), eta batzuek ETAk bere burua desegin zuen eguna (2018). Kasuren batean, nahasi egin zituzten Miguel Ángel Blanco (Ermuako PPko zinegotzia, ETAk eraila 1997an) eta Carrero Blanco (Espainiako Gobernuko presidentea eta Francoren ondorengoa izan zitekeena, ETAk eraila 1973an).

Ezagutza falta hori justifikatzeko, gazteek esaten zuten familia-esparruan transmisio gutxi dagoela:

«Nire gurasoek ez didate hitz egin gertatutakoari buruz; gai honen inguruan isiltasuna besterik ez da egon» (1. l.). «Nire familian guztiari buruz hitz egin didate, salbuespenik gabe, gai honi buruz izan ezik» (2. l.). «Nik esan nuen; nire familian, kontrakoa [], zuzenean eragiten didanez, hitz egin didate horri buruz, beti hitz egin izan da» (7. l.). «Nik uste nuen ETAREN amaiera duela asko izan zela, eta jakin dut duela gutxi izan zela» (4. l.).

Jarduerari amaiera emateko, Alejandrak adierazi zuen memoria kolektiboak tentsio-agertoki bat irekitzen duela, memoria historikoarekiko konfrontazioa prestatzen duena, eta, iragaite horretan, aniztasunaren aitorpenak eta ulermenak ezin dutela alde batera utzi egiazkotasun- eta justizia-erreferente bat. Horrek esan nahi du gertakari eztabaidaezinak eta interpretazio eztabaidagarriak bereizten ikasi behar dela, biktimen ahotsa erdigunean jarri behar dela, azalpen historikoa lagungarri izan dadin biktimen eskubideak aitortzeko: egia jakiteko, justizia egiteko eta erreparazio materiala eta sinbolikoa izateko.

2. fasea

Biktimen ikuspuntura hurbiltzea

1. fasean, memorien eta kontakizunen aniztasuna eta horien arteko adostasunak eta desadostasunak aztertu ziren. Kontraste historikoarekin jarraitu baino lehen, giltzarri gisa balio izan zuen saio bat egin zen: hain zuzen ere, azpimarratu nahi izan zen memorien aniztasunak ez dituela biktimak ezkutatu edo hutsaldu behar. Horregatik, biktimak jarri genituen dinamikaren erdigunean. Sufrimendu bidegabea eta konponezina pairatzen duten pertsona zehatzak dira, kontakizun historiko garaileen eta heroikoen benetako etengailu bihurtzen direnak. Gainera, biktimen testigantzak, sentimendu subjektiboez gainera, ezagutza objetibagarriak ere ematen ditu, Historiak bere kasa eman ezin dituenak; lekuko moral diren heinean dituzten ezagutzetatik datozenak.

4. saioa. **Motibazio politikoko indarkeriaren biktima baten testigantza (2020ko otsailaren 4a)**

Helburuak:

1. Aurrez aurre jartzea parte-hartzaileak eta Euskadin izandako motibazio politikoko indarkeriaren biktima baten testigantza.
2. Giza duintasunaren errespetuaren garrantzia ulertaraztea, haren urraketaren irudi izugarritik abiatuta.
3. Hausnartzea biktimen sufrimendu bidegabearen esperientzia oinarrizko elementu bat dela indarkeria deslegitimatzeko.

Talde dinamizatzaileak azaldu zuen garrantzitsua dela biktimak eta haien testigantzak ikasgeletan egotea, etikaren ikuspegitik zein ikuspegi historikotik. Honako arrazoi hauek aipatu zituzten:

- Biktimen testigantza entzutea, bere horretan, haiekiko justizia-egintza bat da, partziala eta beranduegi egindakoa bada ere.
- Giza eskubideen ideia ulertzeko aukera bat da; ez ideal abstraktu gisa, baizik eta haien urraketan gauzatuta.
- Suminduraren eta errukiaren sentimendu moralak lantzeko aukera bat da, jarrera ideologikoa alde batera utzita.
- Biktima asko etikoki esanguratsuak diren lekuko moralak dira. Izan ere, nahiz eta beren eskubideak urratuak izan, ez dira indarkeriazko mendekuaren gurpil zoroan erori; aitzitik, indarkeria deslegitimatzeko lan egin dute, eta bizikidetzaz berreraikitzeko.
- Biktimak askotarikoak dira, baina guztien ezaugarri bat da erreallitatea ikuspuntu partikular batetik ikusten dutela, eta ikuspuntu hori ezin dela beste batzuekin ordezkatu, bidegabeki pairatutako sufrimenduak markatuta baitago.

Beste jarduera pedagogiko batzuetan zenbait biktimaren testigantzak entzuten badira ere, oraingo honetan biktima bakar bat gonbidatu genuen. Eta parte-hartzaileei adierazi zitzaientzen, benetako biktimak izanik, haietako edozein etorrita ere, biktimen unibertsaltasuna izango lukeela bere banakotasunean; biktima baten bidez guztiak entzun ditzakegu, inor kanpoan utzi gabe. Izan ere, Euskadiko indarkeriazko gatazka ez ditu bi alderdi izan. Terrorismoaren biktimak biktima dira edozein kasutan, ekintzak nork egin zituen kontuan hartu gabe. Biktima bakoitzaren ahotsean ezin hobeki islatuta gelditzen da biktima guztiek pairatu izan duten giza eskubideen urraketak dakarren bidegabekeria.

Talde dinamizatzaileak Iñaki García Arrizabalaga aurkeztu zuen. Juan Manuel García Corderoren semea da. Juan Manuel Telefónicaren Gipuzkoako ordezkaria zen, eta Komando Autonomo Antikapalistek (KAA)⁷ erail zuten 1980ko urriaren 23an. Iñaki irakaslea eta ikerlaria da Deustuko Unibertsitatean. xx. mendeko 80ko hamarkadaren erdialdeaz gerotik, bakearen aldeko erakunde sozialetan parte hartu du: Bakearen Aldeko Elkarte, Bakearen Aldeko Koordinakundea, Denon Artean,

⁷ ETaren zatiketa bat.

etab. Gainera, biktimen eta ETako kide ohien⁸ arteko topaketa errestauratiboetan parte hartu du, bai eta *Adi-adian* hezkuntza-programan ere; programa horretan, biktimek beren testigantzak aurkezten dituzte Bigarren Hezkuntzako eta Unibertsitateko ikasgeletan.

Iñakik honela hasi zuen bere testigantza: «Donostiarra naiz. Nire aita 1980an erail zuten, Telefónicako zuzendaria izateagatik. KAA taldeak hil zuen, ETatik berezitako taldeak. Nik 18 urte nituen gertatu zenean». Bere aitaren heriotza testuinguru historikoan jartzeko, azpimarratu zuen 1980 izan zela erailketa gehien egin zituzten urtea. Ordurako, Franco diktadorea hilda zegoen (1975); 1977ko amnistia orokorrak preso politikorik gabe utzi zituen kartzelak; Konstituzio demokratiko bat onartua zegoen (1978), bai eta Euskal Autonomia Erki-degoko Estatutua ere (1979; *Gernikako Estatutu* ere esaten zitzaion). Gero, bere esperientzia kontatuz jarraitu zuen berrogeita bost minutuz.

«Ohiko familia bat ginen, erdiko klasekoa, eta gure aita ez zegoen mehatxatuta. Erailketa kolpe izugarria izan zen, eta gogorki markatuta utzi ninduen; gorpua ezagutzera joan nintzen amarekin batera Ullia mendira. Nire aita hil ostean, gure amak esan zigun oso garai gogorrak zetozela, eta Donostian bizitzen jarraitzea, gertatutakoaren ostean, oso gogorra izango zela ».

Bere hitzetan garbi ikusten da, erailketaren lehenengo hilak pasa ostean, mina, sufrimendua eta bakardadea zirela sentimendu nagusiak. Euskaditik joan nahi zuen, baina bere sendiak behar zuen. ETarekiko eta haren ingurune politikoarekiko arbuioa gero eta sendoagoa zen, eta ispilu horren bidez begiratzen zion munduari, bitan zatituta zegoen mundu bati: bere alde zeudenak batetik, eta bere kontra zeudenak bestetik.

«Gorrotok beteta nengoen; oso alienagarria da hori, maldan behera zoaz. Gero ulertu nuen ez zutela nire aita erail bakarrik, ni ere erdi hilda nengoela bizirik egon arren. Hori ez zen bizimodua. Ez nuen horrela jarraitu nahi; putzu horretatik atera behar nuen. Cris-

⁸ 2000ko bigarren hamarkadaren hasieran biktimen eta biktimagileen artean egin-dako topaketa errestauratiboak Langraiz Okako (Araba) kartzelako presoan oso sektore txiki batekin egindako lanaren emaitza izan ziren. Preso horiek indarkeriarekiko ikuspuntu kritikoa hartu zuten. Ekimen horrek haustura politiko sakonak eta biktimen elkarre batzuen erantzun negatiboak eragin zituen. Topaketetan parte hartu zuten presoek ez zuten trukean espetxe-onurarik jaso.

tina Cuesta ezagutu nuen; bere aitak ordezkatu zuen nirea Telefónican, eta KAAk 1982an erail zuen. 1986an, Euskal Herriko Bakearen aldeko Elkarteak eratu genuen».

Langraiz Okako kartzelan ETako preso batekin egin zuen bilera, 2000ko bigarren hamarkadaren hasieran, Espainiako lehenengo «topaketa errestitatiboa» izan zen. Sinetsita agertu zen terrorista batek bere iraganaren gogoeta kritikoa egitea eta barkamena eskatzea lortzea oso lagungarria izan daitekeela adiskidetzeko eta bizikidetzara erakitze bidean.

«Kontatu nion lehenengo gauza izan zen, eta xehetasun handiz kontatu gainera, nire familiako kide bakoitza nola gelditu zen. Minez betirik, lur jota utzi gintuztela. Hori kontatu nion, hiltzen dutenean ez dutelako jakiten nola gelditzen diren familietako pertsonak, zer sufrimendu sortzen den hilketaren ostean... Berak aitortu zidan izugarria dela. Gero, berak bere prozesua kontatu zuen: kuadrillaren ingurunea, lehenengo laguntza-ekintzak, gero inplikazio handiagoa, Frantziara joan zen, gero estraditatu egin zuten, eta kontatu zidan zenbat jipoitzen zituzten kartzeletan. Zer pasatzen zitzaien burutik, norbaiti tiro egiteko. Lehenengo aldia da zailena, baina gero errazagoa egiten da. Erakunde hierarkizatua; erraza da sartzea, baina ateratzea, berriz, zaila».

Iñakiri entzun ostean, ikasleek elkarrizketa zintzoa hasi ahal izan zuten harekin. Batzuentzat, lehenengo aldia zen horrelako aukera bat zutena. Zalantzarik gabe, entzundako testigantzak hunkituta utzi zituen parte-hartzaileak.

Gazteen eta Iñakiren arteko elkarrizketaren ardatz nagusiak jarraian aipatzen ditugun gaiekin lotutakoak izan ziren; ikusten den eran, iraganari buruzkoak baino gehiago, orainari eta etorkizunari buruzkoak izan ziren, bakearen eta bizikidetzaren eraikuntzari buruzkoak:

— *Nolakoak uste duzue izango dela bakean bizi den Euskal Herria, behin betiko baketua?* (1. I.).

«[] Gaur egun, jendeak jada ez dauka autoaren azpian begiratu beharrik, ez dira mehatxatuak sentitzen hori aurrerapauso bat da, baina ez da hori bakarrik. Bost hamarkadako kultura terrorista ez da une batetik bestera aldatzen: bizikidetzara normalizatzea eta des-kutsatzeko prozesuak sortzea, hori da erreferentzia etikoa; denbora behar da horretarako. Gaur egun beldurra dago oraindik, baina eman dira aurrerapausoak. Onartu behar da gatazka politikoak izaten jarraituko dugula, baina beste modu batzuetan ebartzeko ditugu,

eta orain arteko konpontzeko moduak deslegitimatuz egin behar dira. Nire xedea da nire seme-alabek eta topaketa errestauratiboetan ezagututako pertsonaren seme-alabek elkarrekin jolastu ahal izatea herriko plazan; nire seme-alabak ez daitezela hazi nik izan nuen zama horrekin. Nire ustez jendeak autokritika egin dezake bere iraganari buruz, eta bere erantzukizunak bere gain hartu. Presoak hurbiltzearen alde nago, haien senideen sufrimendua arintzeko».

— «*Zein dira ETaren ekintzei buruzko ikuspegi erromantikoa amaiazteko gakoak?*» (3. l.).

«[] Terapiarik onena indarkeria deslegitimatzea da... pistola bat hartu eta beste bati tiro egiten diozunean, beste pertsona bat hiltzen ari zara. Lortu behar da onartzea hiltzea gaizki egon zela, ez zuela ezertarako balio izan, ez zuela gertatu izan behar, eta ez zuela merezi izan, min handia eragin baitzuen. Eta hori esan behar dutenak, funtsean, biktimagileak dira. Indarkeriaren benetakoa deslegitimatzaileak indarkeria gauzatu zutenak izan beharko lirateke. Esaten badugu guztiok sufritu dugula, eta guztiok garelara arduradun, orduan, azken batean, inor ez da arduradun, eta hori ezin da horrela izan; batzuek askoz ere ardura handiagoa dute, eta aitortu egin behar dute».

— «*Nik ez dut ulertzen esaten duzunean gaur egun duela hogeitun urte baino hobeto gaudela [] duela hogeitun urte ez zen hain erraza Habiadura Handiko Trena jartzea; ez ETAgatik bakarrik, baita masa kritiko sendoagoa zegoelako ere*». (1. l.).

«Nik esan nahi nuen duela hogeitun urte eraila izan zintezkeela; horregatik bakarrik hobeto gaude jada. Desiragarriena izango litzateke ETaren indarkeriarik gabe erdietsitako lorpen sozialak erakustea. Zer irabazten edo galtzen dute mugimendu sozialek ETak borroketan esku hartzen duenean? Egia da Lemoiz eta Leizarango autobia ETaren presioagatik geldiarazi zirela, ez mugimendu sozialengatik. Baina horrek borroka deslegitimatzen du, eta mugimendu sozialak indarra galtzen du».

— «*Zer iritzi duzu familiak eta kuadrilla-inguruneak eta diskurtso fanatikoek gazteengan duen eraginari buruz [...]?*» (6. l.).

«Zenbait azterlan soziologikok erakutsi dute gazteek ez dutela iragan hurbileko indarkeriari buruz hitz egiten familiekin, ez eta kuadrillako lagunekin ere tabua da. Elkarriketa horiek eraman behar dira familietara, gauza horiei buruzko elkarrizketak desdramatizatu egin behar dira; izan ere, gazteek jakin egin nahi dute, eta nik hala egiaztatu dut ikasgeletako topaketetan, baina familietan ez dute eremu hori aurkitzen. Historiari buruz hitz egin eta irakurri egin behar

da, normaltasunez. Debozio erlijiosoz bizi izan dugu politika. Politika desakralizatu behar dugu []».

- «*Topaketa errestituratu, presoekin topo egin zenuenean, uneren batean ulertu al zenuen, pentsatu al zenuen bazuela nolabaiteko logika bat hark egin zuenak?*» (6. l.).

«Niretzat baliagarria izan zen topaketara joatea ideia hau garbi izanda: nik ez nuen inor hil, eta berak bai, beraz, arrazoa nire alde zegoen. Haren argumentu guztiak logika militaristatik zetozen. Horrek ez ninduen batere konbentzitu. Amaieran, hori guztia alde batera utzi eta barkamena eskatu zenuenean, orduan konturatu nintzen bere biktimgile-izaeraren atzean bigarren aukera bat eskatzen zuen pertsona bat zegoela. Une horretan berehalako konexioa egon zen».

- «*Gai izango zinateke zure aitaren hiltzailea barkatzeko?*». (4. l.).

«Benetako damua egonez gero arrazionalki baietz diot, barnekoherentziagatik. Baina nire aitaren hiltzailea ez dago damututa (esan zuen hobe izango zela ETak 3.500 pertsona hil izan balitu, 860 barrik hil beharrean), beraz, ez nuke berarekin hitz egingo. Damututa egongo balitz gai izango nintzateke barkatzeko, baina ez da horrela».

- «*Prozesu honetan guztian badago falta den koska bat barkamena eskatzea. Bakea ez da bonbarik ez jartzea eta autoaren azpian begiratu beharrik ez izatea bakarrik; baizik eta jakitea indarkeria justifikatzen ez duen gizarte batean bizi garela*» (7. l.).

«Legeak ez du damutzea eskatzen, baina adiskidetzeko pertsonalera behar da. Biktima bat ez da hobe edo okerragoa ez barkatzeagatik, baina barkatzea lagungarria da».

- «*Zure ustez, zergatik hartu dituzte biktima batzuek posizio erradikalak?*» (2. l.).

«Sufrimendu- eta afektazio-maila desberdinak daude, eta biktima bakoitzak dolu-prozesu jakin bat du».

Bukatzeko, lñakik amaierako gomendio bat egin zien parte-hartzaileei: «Jakitea beharrezkoa da beti; garrantzitsua da zer gertatu zen jakitea. Hitz egin hemen izandako gogoetei buruz zuen lagunekin eta senideekin. Saiatu indarkeria deslegitimatzen, indarkeria guztiak. Landu empatia, hau da, bestearen lekuan jartzen jakitea, eta hausnartu, hausnartu eta hausnartu gertatutakoari buruz».

Hurrengo saioa martxoan egin zen. Iñakiren testigantzak gazteen-gan eragindako gogoetei, sentimenduei eta emozioei buruzko atzera begirako elkarrizketa batekin hasi zen, argitzeko zer neurritan lagundu zuen euskal gatazkari eta motibazio politikoko indarkeriari buruzko ideia jakin batzuk zalantzan jartzen edo sendotzen. Ikasleen artean adostasun batzuk sortu ziren, hala nola Iñakiren sufrimenduarekiko empatia, baina baita desadostasun batzuk ere, hala nola barkamenaren beharra, biktimen errugabetasuna eta tortura Estatuaren politika anti-terrorista gisa. Gai horiek jaso ziren, ikaskuntza-komunitatearen hirugarren fasean kontuan hartzeko.

1. Barkamena

«[...] barkamena, barkatzea indar handia duen zerbait da Ni honek utzi ninduen harrituta: berak, guztiaren ondoren, trukean ez zuela bake-rik jaso bere aita erail zutenen aldetik; bere aitaren hilketarekin lotura zu-zenik izan ez zuen pertsona baten aldetik bakarrik jaso zuen» (7. I.).

«Ni harrituta gelditu nintzen. Izan ere, ez dakit gai izango nintza-tekeen (barkatzeko), baina berak jarri zuen baldintza bakarra zen da-mutu zedila; damututa egonez gero, bere aita erail zuena barkatzeko gai izango zela. Baita gero kontatu zuena ere, 92an biktimen talde batekin elkartu zela, euskal gizartean bizikidetzeta eta bakea eraikitzeko. Esan zuen zenbait alderditako eta ideologiatako biktimek aurpegiaritzen ziotela jende horrekin eseri izana, eta esan zuen euskal gizartea ez zegoela prest gauza horiek onartzeko. Niri harrigarria iruditzen zait haiek (Iñakiren gi-sako biktimak) beren azalean bizi izanda [...] gizartea aldatzeko proposa-menak egiteko gai direla, eta gu, gure ingurunea, berriz, ez []» (4. I.).

2. Biktimen errugabetasuna

«Niri iruditu zait oso garbi zuela guztia zer testuinguru historiko-tan gertatu zen [...]. Berak garbi zuen intentsitate baxuko gerra-une bat zela, tortura, heriotzak eta errepresioa zeudela. Baina, halere, ez nau konbentzitu esaten zuenean bere aita Telefónicako soldatapeko langile hutsa zela; izan ere, bere aita Telefónicako gerentea zela dio []. Telefónicak paper garrantzitsua jokutzen zuen gerra horretan. Be-rak ere esan zuen ETak eta Komando Autonomo Antikapitalistek Te-lefónicari egozten ziotela telefono-entzuketak ahalbidetzen zituela. Tortura edo erailketa asko ez ziren posible izango entzuketak horiek gabe. Telefónica ere gatazkaren parte da []» (1. I.).

«Telefónicak ez zuen aukerarik. Epaille bat etortzen bazaizu, eta agindu bat ematen badizu, eta esaten badizu telefono-entzuketak egin behar dituzula pertsona jakin bat talde terrorista batekoa dela

usmatzen dutelako [...]. Aktiboki atentatuak eragiten eta hiltzen ari ziren pertsonak atxilotzeko egin ziren entzuketak [...]. Entzuketan eta torturen arteko lotura koiunturalegia iruditzen zait» (7. l.).

3. Tortura Estatuaren politika antiterrorista gisa

«Gauza bat dira poliziaren torturak, existitu zirenak eta pixkanaka jazarriak izan zirenak; frankismotik oinordetzan jasotako jarduera bat zen, eta desagerrarazten ahalegindu ziren. Eta nik ez dut uste gaur egun oraindik Espainian torturatzen denik. Eta kartzelan sartu zuten torturatzen ibil izandako jendea [...]. Ez zen Estatuaren politika demokrazian zehar jendea sistematikoki torturatzea. Gertatzen zen, baina ez zen politika bat. Orduan, nik uste dut bereizi egin beha dela» (7. l.).

«Ni ez nator bat zurekin. Nire ustez sistematikoki egiten ziren; hau da, orain ikusten ari garena, salaketak telebistan, duela gutxi, ez dakit Billy el Niño izan zen, sistematikoki torturatzen zen, Polizia Nazionalaren parte zen, eta ez zen Trantsizioarekin bukatu, askoz beranduago baizik, duela, ez dakit, euskal gatazkarekin lotutako azken tortura-kasu handia 2011n izan zen, baina behintzat tortura ez da izan noizean behingo zerbait bakarrik» (1. l.).

Elkarrizketa ixteko, talde dinamizatzailleak gogorarazi zien bi alderdi daudela, testigantza bat ikuspegi etikotik egokia den ala ez bereizteko oso garrantzitsuak direnak. Lehenik, esaten duena egia den ala ez, eta, bigarrenik, kontatzeko moduak justizia egiten laguntzen duen ala ez. Inakiren kasuan, gertakari objektiboa da komando batek bere aita erail zuela, eta gertaera hori kontaktzen duenean, indarkeria deslegitimatzeko asmoz egiten du. Horrek esan nahi du honako suposizio hau hartzen dela oinarri: ezin da indarkeriaren erabilera justifikatu. Adibidez, gertakari egiaztagarria da Trantsizioan eta demokraziaren finkapenean zehar torturak egon zirela, horiek ez zirela noizean behingoak izan, eta egiaztatuta dago Estatuak erantzukizuna izan zuela zenbait kasutan, nahiz eta politika sistematiko bat ez izan, diktadura garaian bezala. Baina hortik ezin gara igaro Estatuarekin lotutako pertsona baten erailketa justifikatzera, haren duintasun besterenezinaren muturreko urraketa bat baita. Biktima guztien ezaugarriak dira haien errugabetasuna eta pasibotasuna. Errugabetasuna, haien lanbidea alde batera utzita (Telefónicako langilea, kazetaria, polizia, epailea, etab.) ez zuelako pairatutako biktimizazioa merezi, eta pasibotasuna, bitkimagileak edo borroeroak bihurtzen duelako biktima, berak nahi izan gabe.

3. fasea

Memoriaren historizazioa

3. fasea hiru saiotan⁹ antolatu zen: talde dinamizatzaileak, gazteak entzun ondoren, 1. fasean egin zen bezala, ideia eta jarduera zehatzak proposatu zizkien haiei, euskal gatazkari eta indarkeriari buruz zituzten memoria pertsonalak eta kolektiboak zer testuinguru historikotan kokatzen ziren kritikoki hausnartzeko. Azaldu zen, historiaren irakaskuntzak indarkeria deslegitimatzen laguntzea nahi bada, funtsezkoa dela gizarte bateko kontakizun desberdinei buruz kritikoki hausnartzeko gaitasuna lantzea gazteekin. Iraganarekin lotutako berezko konplexutasunaren aurrean, indarkeria justifikatzen duten kontakizunak sinplistikak izan ohi dira: ikuspegi kontrajarriak ezabatzen dituzte, indarkeriari eusten dioten engranaje sozialak ezkututzen dituzte eta gizarte batean indarkeriaren erabileraren inguruan sortu ohi diren hausturak eta eztabaidak ezabatzen dituzte. Historiaren irakaskuntzak iraganeko konplexutasun hori ulertzen lagundu behar du, desagerrarazi ordez.

Zenbait tailer egin ziren, «memoria historizatzea» xede zutenak; hau da, memoria pertsonalak eta kolektiboak galdekatzea, pentsamendu historikoaren kategoria zentral batzuetatik abiatuta. Horretarako, ikaskuntza-komunitateak historiaren irakaskuntzaren ikuspegi berritzaileak hartu zituen inspirazio gisa. Horien arabera, kontua ez da iraganari buruzko informazioa helarazte hutsa, pasiboki jaso dadin; ai-

⁹ Hirugarren fase honetako azken bi saioak urrunetik egin ziren, COVID-19k erangidako osasun-egoeratik.

ztitik, hari buruz modu kritikoan pentsatu ahal izateko tresnak ematen ahalegintzen dira.

5. saioa. «**Aspaldi zaharreko gatazkaren kontakizuna**» **berreraikitzea (2020ko martxoaren 11)**

Helburuak:

1. Zenbait iturritan oinarrituta, «aspaldi zaharreko gatazkaren kontakizunaren» egitura narratiboa berreraikitzea.
2. Kontakizun horren puntu ahul batzuk identifikatzea, hurrengo saioetan kritikoki alderatzeko.

Euskal gizartea, gizarte guztiak bezala, gizarte plurala da, eta euskal gatazka zer den azaltzen duten imajinario eta kontakizun desberdinak daude, bai eta horiek indarkeriarekin nola lotzen diren azaltzen dutenak ere. Horien artean, iritzi publikoan nahiko hedatuta dagoen kontakizun bat dago: «aspaldi zaharreko gatazkaren kontakizuna». Hori funtsezko baliabide ideologikoa izan da indarkeria justifikatzeko, eta indarkeriarekin nolabaiteko normaltasunez bizitzeko aukera eman dio euskal gizarteari.

Saio honetan, kontakizun horren funtsezko giltzarriak berreraiki ziren, talde dinamizatzaileak aukeratutako iturri multzo batean oinarrituta:

- Iñaki Soto (2019), *La última entrevista con la dirección de ETA*. Tafalla: Txalaparta, 34., 37., 51., 93-94. or.
- ETAK Euskal Herriari: eragindako kalteari buruzko adierazpena, 2018/04/04.
- KASi buruzko zati bat, Justo de la Cuevaren *La negociación vasca radical del capitalismo mundial* (1994) liburukoa. Madril: Vosa.
- Jarrai (1985), *Edabe magikoari buruzko komikia*.
- Pentsatik ateratako karikaturen bilduma bat¹⁰.

¹⁰ *Tirabirak-Tiras que aflojan* ekimenak bildutako karikaturak, <http://www.tirabirak.eus/es/> (transmedia proiektu bat da, eta iragan gatazkatsua landu izan duten prentsako tirak bildu ditu) [20/03/01ean berreskuratua].

- Elkarriketa Arnaldo Otegi, «El Gobierno español no ha estado preparado para la paz», *Eldiario.es*, 2018/05/11.
- Miguel Castellsen zatia (1982) *Ponencia al Senado*, 27. or.
- Pilar Iparraguirre (1994), *Félix Likiniano. Miliciano de la utopía*. Tafalla: Txalaparta.
- Jarrai (1988), *Garraxika*, 1988ko otsaila, 7. zk., 5.-8. or.
- Lorenzo Espinosa (1995), *Anuario de Egin*, 126. or.

Ikasle bakoitzari sei orrialdeko txosten bat eman zitzaion, material horiek guztiak biltzen zituena, banaka irakur zitzaten. Banaka irakurri ostean, binaka lan egin zuten, eta materiala aztertu zuten, honako galdera hauek ardatz hartuta:

1. Zein dira testu bakoitzaren ideia nagusiak? Euskal gatazkari buruzko zer ideia transmititu nahi dituzte? Nola azaltzen dira indarkeriaren sorrera eta zeregina?
2. Nor dira eragileak? Nor dira «gu» eta nor dira «haiek» edo «besteak»? Zer ezaugarri ematen dizkie iturri bakoitzak talde horietako bakoitzari eta haien arteko harreman historikoei? Zer eragile garrantzitsu ez dira ageri?
3. Zer hitz dira bereziki garrantzitsuak duten esanahi ideologiko, politiko edo sozialagatik?

Gero, bikote bakoitzak bere azterketaren emaitzak aurkeztu zituen, parte-hartzaile guztien artean aukeratutako iturrietatik abiatuta eraiki daitekeen kontakizun zabalaren gako nagusiak berreraikitzeko. Jarraian, gaika multzokatu dira ikasleen esku-hartzeak, eta haien oharrei dagozkien iturrietako testu-zatiak edo irudiak ere sartu ditugu.

1. Erresistentziaren eta independentziaren epika, mendetako indarkeriazko eraso baten aurrean.

«Guk ikusi dugu ETak armak hartzearen justifikazio bat. Honela justifikatuta, alegia: «bai, tira, armak hartu genituen indar atzerritar batek, Espainiak (hori izan daiteke), faxistek, frantsesek... Horiek guztiak zanpatu egin nahi gaituzte, eta, tradizio historikoz, guk armak hartu behar ditugu gure lurra defendatzeko». Egia esan, inoiz ez da benetan zehazten zein den lurra. Gatazkaren hasiera denboran hain urrun jartzen denez, geure buruari galdetu behar diogu ea bazegoen herri primitibo baten kontzientzia. Izan ere, esaten da une batean bakarrak ginela, dena ederki zegoen, isolatuta geunden, eta

kupula batez babestuta bezala. Gero kupula hori altxatu zen, eta kanpotarrak etorri ziren. Kanpoko indar horiek aldatuz joan dira, baina guk eutsi egin diogu indarraren bidez. Irakurritako testu guztien narratibari azpimarratzen da haiek (atzeritarrak) inposatzen ahalgindu direla beti, eta indarkeriaren bidez egin dutela, zapalketaren bidez». (2. l. eta 7. l.).

«Zapalketaren efektu edo ondorio gisa ikusten da borroka armatua» (1. l.).

«Uste dut modu errazena eta bisualena, gurea denaren horri buruzkoa, Asterix eta Obelixen ikusten dudala: gu galiarrak gara, erromatarren inbasiotik defendatzen ari garenak, eta haiek inperialistak dira, ez digute lasai bizitzen uzten, eta, funtsean, erresistentziaren gertakari heroikoa, indar handi baten aurkakoa, herrialde oso baten aurkakoa». (3. l.).

«Gure herria askatzeko borrokan dihardugun heroiak gara gu. Nire aitak hau esaten zidan: hau etxe bat da, eta zenbait logela ditu, eta, halako batean, norbait sartzen da nire etxera, eta nire logeletan jartzen da bizitzen, eta sukaldean jakiak prestatzen hasten da, eta berak erabakitzen du zer prestatu nahi duen [...] zer ordutan afaltzen den [...], eta horrela sartu dira eta horrela hasi dira guri esaten nola egin behar ditugun gauzak. Eta hori da gaia azaltzeko duten modua, hori bezain simplea. Nire ustez ikuspuntua aldatu nuen Belfastera joan eta hango jendearekin egon nintzenean. Han jendeak, jende gazteak, esaten zizun ez zuela harremanik izan nahi horko horiekin; izan ere, horiek etorri ziren, eta ez dakit nor hil zuten. Eta orduan nik pentsatu nuen gorroto zituztela ezagutu ere egin gabe, eta astakeria iruditzen zait hori. Eta Euskadin berdina gertatzen zen. Orduan, aitak kontatzen zidan istorioari buruz pentsatzen hasi nintzen, eta ohartu nintzen hor bazegoela beste zerbait ezkutuan. Ni ere horrelakoa nintzen lehen: eskumuturreko batean Espainiako banderatxo bat zuen norbait ikusten banuen, gaizki begiratzen nion, eta oraindik ere egiten dut, baina ezin dudalako bestela egin. Barne-barnean daramat. Baina orain, behintzat, ikus dezaket urrutitik, eta pentsatu [] zertan ari zara?». (4. l.).



Iturria: Tasio, Egin, 1995/03/23.

Ziklo hau mende erditik gorakoa izan da. Historikoki karlistaldiekin alderatu daiteke, edo, atzerago begiratuz gero, Nafarroaren konkistarako borrokarekin. Ba al dago horiek batzen dituen haririk? Galdutako subiranotasun-tresnak eta -erakundeak berreskuratzeko konprometitutako herri bat: hori da guztiak lotzen dituen haria. Galdutako Estatuaren defentsan, galdutako foruen defentsan, faxismoaren kontra edo independentziaren alde borrokan. Estatu espainiar eta frantsesak gure nortasunaren kontra gauzatutako ukapenaren aurkako erresistentzia antolatzen jakin izan duen herri baten historia da (...). Beste alde batetik, bakean bizi nahi izan duen arren, gure herriak armak hartu behar izan ditu historiako zenbait unetan, Espainiaren batasunaren izenean eragin dioten zapalketa armatuari aurre egiteko. (Soto, 2019, 51. or.)

They are *a idealist persons*, gure money ez interesatzen, ¡They pretend the nacionalization! Eta subertsiboak damutzeraz behartzen baditugu? Euskaldunak ez dira ezertaz damutzen, euskaldunak dira, eta kitto. Erabil dezagun armadaren indarra (...) Ja! 2.000 urteko inbasioaren ostean, inbasoreak desagertu egiten dira (...). Nire semeak irakurtzen dituen Asterixen komikietan gertatzen den bezalaxe (...). *Hauxe da gure alternatiba: JO TA KE IRABAZI ARTE!* (JARRAI, 1985).

2. Indarkeriaren erabileraren justifikazioa

«Testu guztietan ageri den beste ideia nagusi bat da armak hartzeak eragin ahal izan dituen ondorio guztien deslegitimazioa [...]. Kontatzen dute armak hartu zituztela euskaldunen historiaren parte delako, baina ez dute esaten zer bihurtu zen indarkeria hori. ETAk egindakoa justifikatzen saiatzeaz gainera, oro har espainiar gizarte osoak eta euskal gizartearen zati batek egiten zizkien kexak edo kritikak deslegitimatzeko erabiltzen dituzte [...]. Iruditu zaigu adierazten dutela armak hartzea eta bonbak jartzea normala dela, eduki dugun historiagatik, baina ez dute datu errealik ematen. Gernikako bonbardaketari buruz hitz egiten dutenean, adibidez, ez dute aipatzen Madril ere bonbardatu zutela, gorriz beteta zegoelako. Badirudi, Madrilen, bat-batean, gorriak izatetik frankistak izatera igaro zirela denak. Eta euskaldunok eutsi egin genion guztiok, eta oraindik ere eusten jarraitzen dugu. Iruditu zaigu hutsune handiak zeudela, eta haien manipulazioa izan daitezkeela []» (2. l. eta 7. l.).



Iturria: Tasio, Gara, 2000/05/10.

«Garbi esan behar dugu ez ginela gu izan herri honetara indarkeria ekarri zutenak. Ez ginen gerrara joan: gerra ekarri egin ziguten. Erakundeak pertsona baten kontrako lehen ekintza egitea erabaki zuenerako, Melitón Manzanás torturatzaile faxistaren kontrakoak, ordurako Estatuak bortizki kolpatua zuen euskal erresistentzia, eta hildakoak zeuden, torturaren ondorioz hildakoak, odol hotzean metrailatutakoak eta liskar armatuetan hildakoak. Ez dugu ahaztu behar, gainera, erakundeak armekin erantzutea erabaki zuenerako, gure herriak urteak zeramatzala indarkeria etengabearen pean. Gernikako sugarretatik sortu ginen, Gernikaren seme-alabak gara (Soto, 2019, 93.-94. or.).

[...] sufrimendua zen nagusi ETA sortu baino lehen, eta hor jarraitzen du ETAk borroka armatua utzi eta gero ere. Gernikaren bonbardaketaren osteko belaunaldiok indarkeria eta arrangura hura jaso genituen oinordetzan, eta guri dagokigu etorkizuneko belaunaldiek beste etorkizun bat jasotzeko ardura [...]. Gatazka politikoari irtenbide demokratiko bat emanez, bakea eraiki eta askatasuna lortu ahal izango dugu Euskal Herrian. Gernikako sugarrak behin betiko itzaltzeko» (ETA, 2018-04-04).

3. Euskal herri homogeen bat existitzen da *in illo tempore*, eta identitate-sentimendu handikoa, planteamendu dikotomiko bategan oinarrituta (Gu/Haiek), disidentziarako lekuri gabe.

«Bueno, guk ere berdina ikusi dugu gutxi gorabehera; alde batetik, herri baten, Euskal Herriaren, identitatea eraikitzekeo ideia nagusia, antzinarotik datorrena, eta «beti» hitza azpimarratu dugu, beti hor egon izan balitz bezala. Noiz da beti? Eta, gero, identitatea eta nazio kontzeptua eraikitzeaz gainera, hori testu guztietan ikusten baita, ETAk armak hartu izana justifikatzeko ahalegina; ondorioa da


beti, inoiz ere ez da inizatiba, baizik eta beste nazio, herri edo ideologia batzuen zapalketatik pairatutako beste indarkeriazko ekintza batzuen ondorioa. Eta diskurtso biktimista da, gu gara biktimak, eta guk, bidezko defentsan, armak hartu ditugu eta batu egin gara zapalketaren eta gu zapaltzen aritu direnen kontra borrokatzeko... Ikusi dugun beste gauza bat da identitateak eraikitzeke logika dikotomikoa dagoela. Gu eta haiek geunden. Eta aipatu dugu ETAK «guk» bezala ulertzen zuela, desberdintasun politikoak daudela aitortu gabe []» (3. I.).

«Euskal Herriak inbasoreen kontra izandako sustrai historikoko borroka hori aipatu dugu; euskaldunok iraganeko ekintzetan ikusten dugu gure identitatea. Belaunaldi horiek balio izan dute euskaldunok gaur egun gure hizkuntza eta gure identitatea izateko. Baliagarritasunarekin justifikatzen dute, baliagarria izan da. Eta gero, halaber, mendeku gisa; Gernikako sugarrekin sufritu genuen, gorroto horretatik abiatu gara, sufritu egin dugulako, eta gure biktimak ohoratu nahi ditugu []. Gero, ohartu gara kontakizun hori aukera bakar gisa azaltzen dela; egia absolutua da, ukaezina, gurea, eta ez bazaudete ados, "besteak" izango zarete, ez zarete "gu" horren parte» (4. I.).

«[] Euskal Herri horren baitan, ezin da egon Asterix eta Obelixen estereotipo horrekin bat ez datorrenik. Herri horretan erromatarren seme-alabaren bat badago, ez du herrian parte hartuko. Edo beste pentsamolde motaren bat, sozialista ez dena, tira. Esan nahi dudana da ETAREN ideia Euskal Herriaren identitate bakar bat zela, eta ez zegoela lekuri identitate plural batentzat; funtsean, "gu" edo "haiek" zen, eta "haiek" hori gaizkiarekin lotzen da, zapaltzaileekin, erasotzen lehenarekin, eta erasotzen jarraitzen duenarekin, eta historia osoan zehar erasotzen jarraituko duenarekin» (3. I.).

«Ikusten da gu garelako erresistentzian gaudenak, eta haiek gaiztoak direla, eta beti izango direla, eta haien existentzia haien gaizotasunarekin lotuta dagoela, eta gu zintzoak garelako» (2. I.).

«Xake-taula. Gernika Euskal Herriaren eta Espainiaren herriaren arteko partida da» (3. I.).



Iturria: Eneko, Egin, 1988/11/04.

[...] Euskaldunok hiltzeko eta akabatzeko zalantzarik izan ez zuten belau-
naldeiei zor dizkiegu gure hizkuntza, kultura eta identitate nazionala, gure me-
moría historikoa [...]. Haien memoria gure bizitza da, eta gure borroka, etor-
kizuneko belaunaldien bizitza» (KAS, in De la Cueva, 1994, 251.-258. or.)

Parte-hartzaile batzuek ETaren anagramaren esanahiari buruz gal-
detu zuten.

«[] sugea eta aizkora Koldar samarra da, ez? Sugea isila da, atze-
tik hurbiltzen da » (7. l.).

Talde dinamizatzaileak azaldu zien xx. mendeko 70eko hamarka-
daren hasieran sortu zuela ikonoa Felix Likinianok, ideologia anarkista
zuen euskaldun batek: bi esparruetan, politikoan eta militarrean, jarrai-
tzeko asmoa islatzen du. Sugeak arlo politikoa adierazten du, zuhurra
baita; eta aizkorak, arlo militarra. Alegorikoki, aizkorak berridatzi nahi
du Nafarroa Gaztelaren eskuetan erori izana (1512), eta erakunde ar-
matuak erabiltzen duen ikurraren bertsioan, sugea aurrerantz begira
dago, eta gerra-tresna menderatzen du.

«[...] Esan zuen aizkora euskaldunek historian zehar borroketan erabi-
litako tresna zela, Orreagako brontzezko aizkorak aipatu zituen [...] “Beti
borrokatu behar izan dugu gai beragatik. Zuek ere gai beragatik borroka-
tzen duzue [...] Ez zen beharrezkoa izan inork azaltzea; sentitu egin zenu-
ten (...)” “zer egin behar da aizkora behar bezala erabiltzeko? Ba, helbu-
rura hurbildu isilka” Horregatik dago hor sugea [...] Eskulturari, sugeari
burua aurrerantz begira dago [...] Likinianok hau esan zuen: “adimena
da indarraren kausa” [...] “Inork zure lurra hartzen badu indarrez, ez dizu
itzuliko. Eta indarrez erantzuteko eskubidea duzu [...]”». (Iparragirre,
1994, 39.-40. or.)



Iturria: https://es.wikipedia.org/wiki/Bietan_jarrai

4. Demokrazia erregimen neofrankista gisa

«Esaten dute oraindik ere frankismo bera dagoela, baina beste bi-tarteko batzuekin; demokraziari buruz eta balioei buruz hitz egiten dute, 98an edo 99an egongo ez balira bezala, baina ez da ondo azaltzen zergatik ez dagoen demokraziarik. Esaten dute ez dagoela; izan ere, gutxieneko eskubide demokratikoen alde borroka egiteari buruz hitz egiten dute. Baina gutxieneko eskubide demokratikoetako bat bozkatzea da, ez? Eta guztiak askeak eta berdinak izatea []» (7. l.).

«Premisa gisa hartzen baduzu jokoaren arauak ezarri egin dizkitutela, ez dago demokraziarik. Izan ere, Konstituzioa bera ere Espainiako estatuak ezarri zuen» (3. l.).



Iturria: Mattin, *Egunkaria*, 1999/12/05.


«Euskal Herriarentzat, diktadorearen heriotza ez zen oso hunkigarria eta erabakigarria izan. Azkenean, gauza beraren jarraitutasuna izan zen, beste bitarteko batzuekin. 1975. urtearen ondoren Espainiaren lurraldea eremu historiko naturaletan banatzea eta zatitzea espero zutenak oker zeuden. Euskal Herria aurreko mendeaz geroztik inbadituta zegoen eta, gainera, 1936an bortizki erasoia izan zen herrialde bat zela eta naturalena inbasioarekin amaitzeko moduak bilatzea izango zela uste zutenak oker zeuden. Trantsizioaren urteetan, modakoa zen itxurak aldatzea, denak berdin jarrai zezan, eta Estatuaren erreforma eta antzeko gai garrantzitsuei buruz gezurra esatea [...]. 1978ko Konstituzioak [...] ukatu egiten zuen independentzia aitortzeko aukera oro, eta Espainiaren subiranotasunaz eta askatasunaz bakarrik hitz egiten zen [...]. Estatuarekin bukatu zen prozesua [...], eta haren helburu aitorezinetako bat zen Estatua legitimatzea, eta lurralde honetan zuen presentzia leuntzea. Iraganerantz egindako trantsizioa izan zen. (Lorenzo Espinosa, 1995, 126. or.)

«[...] azken hamarkadetako esperientziaren azterketa sakona eginda, ikusten da espainiar agintaritzetatik higitutako autonomismo-esparruek ez dutela balio subiranotasuna eta Euskal Herriaren batasuna eraikitzeko; aitzitik, euskal lurraldeen arteko haustura errotzen dute, eta Espainiarekiko mendekotasuna luzatzen. Beste alde batetik, Espainiako estatuan irekitzen ari den etapa erreakzionarioak agerian uzten du Espainiak urte hauetan egin duen trantsizio bakarra izan dela diktadura frankistatik demokrazia neofrankista batera igarotzea, modu eta forma batzuk eguneratu baditu ere —ez gehiegi, egia esan— [...]» (Soto, 2019, 34. or.)

Aurreko oharretan ikusi dugun bezala, iturrien irakurketan elementu komun oso garrantzitsua erakusten dute ikasleek. Ikusten dute gatazkaren ikuspegiari jarraitutasun historikoa ematen zaiola, betidanik existitzen dela adierazten baita. Nahiz eta identifikatzen diren une eta aldi historiko zehatz batzuk, etengabe eusten zaio eraso baten aurkako erresistentziaren epikari. Horregatik azpimarratzen da, zalantzarako edo anbiguotasunerako lekuri gabe, ETaren indarkeria «beste batzuen» egiturazko indarkeriari erantzuteko indarkeria besterik ez dela, sistematikoki konkistatu eta suntsitu nahi baitute Euskal Herria. Euskal Herri hori talde homogeen gisa adierazten da, hausturarik eta desadostasunik gabeko talde gisa; hau da, identitatearen ikuspegi dikotomikoa eta moralista da: «guk» erresistentzia gauzatzen dugu (heroismoak markatutako ontasun moralak), eta «besteek» eraso egiten

dute (gaiztakeria morala). Beste alde batetik, parte-hartzaileek nabarmendu zuten iturri batzuetan azpimarratzen zela frankismoak jarraitu egin zuela Franco hil eta gero ere, espainiar demokraziaren legitimotasun faltaren eta euskal herritarren zanpaketa erakusgarri. Gainera, «aitaren etxearen gaia» eduki sinboliko sendoenetako bat da («aitaren etxe defendituko dut») aspaldi zaharreko gatazkaren kontakizunean eta inkontziente kolektiboan, eta erro kultural sakonak ditu eta zentzua ematen dio.

Gazteen ekarpenak bukatutakoan, talde dinamizatzailerak azaldu zuten haiek aipatutako alderdi guztiek egitura narratibo bat osatzen dutela, gatazkaren ulerkeraren oinarria dena (ikus 1. kontzeptu-mapa). «Aspaldi zaharreko gatazkaren» kontakizunak honako premisa hau du oinarri: bi alderdi zeuden, eta denborak aurrera egin ahala, behin eta berriz, etengabeko borroka historiko batean aurre egiten diote elkarri, eta, borroka horretan, indarkeria beharrezko bitarteko saihetsezina da. Nor dira bi alderdi horiek? Alde batetik, «gu», euskaldunak, Euskal Herria, biktima dena; eta, bestetik, aurkako «besteak», Espainia, inbaditzailea, zapaltzailea, Euskal Herria biktimizatzen duen kultura arrotza. Ikuspegi dikotomiko erabat erradikala da. Halaber, «gu» horri buruz hitz egiten denean, herri langileari buruz, ezaugarri positibo jakin batzuk lotzen dira eragile horiekin: askatasunarekin, justiziarekin eta subiranotasunaren defentsarekin lotutako idealak dituzten pertsonak edo giza-kiak dira, sufrimendu-esperientzia gogorak izan dituztenak etengabe. Kontrako aldean, «besteak», espainiarrak, despertsonalizatuta ageri dira; ez dute aurpegiarik, ez eta esperientziarik edo idealik ere. Hori funtsezko estrategia narratiboa da; izan ere, «besteari» aurpegia jartzen diozun unean, dikotomia hausten hasten da. Beste alde batetik, ikuspegi dikotomikoaren ondorioz, «gu» horren baitan ideal horiekin bat ez datozenak edo esperientzia zalantzan jartzen dutenak komunitatetik kanporatzen dira, heretikotzat eta traidoretzat jota. Indarkeria justifikatzen duen kontakizun sinplistaren egitura agerian uzteko jarduera hori bera egin beharko litzateke nazionalismo espainiar esentzialistarekin, beste indarkeria mota batzuk justifikatzen baititu. Kontakizun sinplista horien arazoa da ez dutela aukerarik ematen galderetarako edo ñabarduretarako, ez eta ikuspegi desberdinak alderatzeko ere.



Iturria: Egileek egina.

1. KONTZERTU-MAPA


Aspaldi zaharreko gatazkaren kontakizunaren egitura narratiboa

6. saioa. **Gatazkaren jarraitutasunaren eta indarkeriaren beharren suposizioen azterketa kritikoa (2020ko apirilaren 22a)**

Helburuak:

1. Agerian uztea aspaldi zaharreko gatazkaren kontakizunaren hutsune eta joera nagusietako batzuk.
2. Jarraitutasunaren suposizioari (denborazkotasunaren kategoria historikoarekin lotua) aurre egitea, modu kritikoan.
3. Beharren suposizioari (kausalitatearen kategoria historikoarekin lotua) aurre egitea, modu kritikoan.
4. Hausnartzea kontakizunaren sinplismo horiek indarkeria normalizatzen eta legitimatzen laguntzen dutela.

Talde dinamizatzaileak azpimarratu zuen aspaldi zaharreko gatazkaren kontakizunaren egitura narratiboak zenbait puntu ahul dituela, azalpen historikoa izugarri sinplifikatzen dutenak, eta indarkeria normalizatzea dakartenak. 2. kontzeptu-mapan, puntu ahul horietako batzuk jaso dira (gorriz markatuta).



Iturria: Egileek egina.

2. KONTZERTU-MAPA

Gatazkaren jarraitutasunaren eta indarkeriaren beharren suposizioak zalantzan jartzea

Saio honetan, kritikoki aurre egin zitzairen gatazkaren eta borrokaren «jarraitutasunaren» eta indarkeriaren «beharraren» suposizioei. Indarkeria erantzun legitimoa, beharrezkoa eta saihetsezina dela erakusteko, aspaldi zaharreko gatazkaren kontakizunak honako hauek egiten ditu:

- Kausa bakar bat eta zenbait jarraitutasun azpimarratzen ditu, multikausalitatea eta jarraitutasunik eza kontuan hartu gabe. Kanpoko mehatxu etengabe eta jarraitua (kausa bakarra) dagoela azpimarratzen du, eta, horrek, inbutu-efektu gisa, erantzun bakarra egon daitekeen une historiko batera daramana.
- Euskal kasua ohiz kanpoko delako azpimarratzen du; hartara, panorama zabalagoetatik (espainiarrak edo europarrak) kanpo uzten du. Izan ere, horiek beste kasu batzuekiko jarraitutasunak, antzekotasunak eta desberdintasunak erakutsiko lituzkete, eta, beraz, zalantzan jarriko lituzkete kausa bakarraren azalpena eta euskal kasu bereziaren irtenbidea saihetsezina dela.
- Argudiatzen du gertakariak beharrezkoak eta saihetsezinak direla, giza ekintza baldintzatzen duten egoerengatik. Gizakia- ren egiletasuna, asmo osoz egindako ekintzak, egoeren aurrean dauden erantzun-aukerak ezkututzen edo lausotzen dira (hautatze bidez).

Hipotesi horiek zalantzan jartze aldera, saio honetan, informazio historikoa eman zitzairen parte-hartzaileei, aspaldi zaharreko gatazkaren kontakizunaren zenbait hutsune eta joera agerian uzten duena. Horrela, erakutsi nahi zitzairen denborazkotatasunaren eta kausalitatearen gaiak konplexutasun handiagoz landu daitezkeela, eta, hortik abiatuta, konplexutasun horrek indarkeria desnormalizatzeko lanean duen inpaktuari buruz gogoeta egin. Horretarako, lau jarduera egin ziren, bakoitza bere baliabideekin:

- Lehenbizi, *Historia de los vascos en 10 minutos* bideoa ikusi genuen (dokumentazioa eta gidoia Jose Mari Pérezena, eta gidoia eta ekoizpena Gorka Pérezena); jarraian, bideoaren iruzkin kritikoa egin zuen talde dinamizatzailak.
- Bigarrenik, Raúl López Romoren (2019) «El mito atroz de una rebelión secular: Carlistas, gudaris y etarras» (in *Del final del terrorismo a la convivencia*, Madril: Catarata, 11.-25. or.) artikuluari buruzko eztabaida egin zen ikasleekin batera.

- Bukatzeko, multikausalitatearekin lotutako gaiak landu ziren sakonki; Gerra Zibilean eta gerraondoa Euskadin eta Espainiako beste eskualde batzuetan izandako errepresioari buruzko datuak alderatu ziren.

HISTORIA DE LOS VASCOS EN 10 MINUTOS BIDEOAREN AZTERKETA KRITIKOA

Bideo hau honela aurkezten da *Youtuben*: euskaldunen historia, «modu labur, sinple eta grafikoan kontatua, guztientzat ulergarria, baita historiari buruzko ezagutzarik ez dutenentzat ere». Bideo hau aukeratu zen, zehaztugabetasun faktikoz eta joera interpretatibo betetako historia bat aurkezten duelako hamar minutu eskasean; horiek aspaldi zaharreko gatazkaren kontakizunaren hipotesi nagusien oinarri dira, hain zuzen ere. Nahiko maiz, ez bideoetan bakarrik, baita bestelako dokumentu eta euskarrietan ere, bi akats mota egin ohi dira identitate nazionalarekin lotutako historiaren irakurketa egitean: a) anakronismoa; hots, zenbait kategoria politiko erabiltzea, hala nola «erresuma» edo «lurralde», ez dagozkien une historikoekin lotuta; b) ideologikoki baldintzatutako aukeraketa batean oinarritutako sinplifikazioa.

Honako taula honetan, bideoko atal batzuen transkripzioa jaso dugu, eta, paraleloan, zehaztugabetasun, joera eta kontraesan nagusiak adierazi ditugu.

5. KOADROA

Aspaldi zaharreko gatazkaren kontakizunaren adibide baten analisi kritikoa

<i>Historia de los vascos en 10 minutos</i> bideoaren transkripzioa	Iruzkin kritikoa
<p>Hau Garona ibaia da, hau Ebro ibaia, eta bi ibai hauen artean kokatu izan da Euskal Herri zaharra. Erdian, Pirinioak daude, euskaldunen babestoki naturala, inbaditzaileek erasotzen zietenean. Gutxi dakigu antzinako herri honi buruz. Dirudenez, zenbait tribuz osatuta zegoen; guztiak antzeko ohiturak eta hizkuntza zituzten, euskara. Bueno, edo hala esan ziguten behintzat erromatarrek; haiek izan baitziren lehenak hona iritsi eta hori kontatzen.</p>	<p>— «Euskaldunei» buruz hitz egiten duenean, ez ditu aipatzen tribu desberdinak: autrigoiak, karistiarrak, barduliarrak, beroiak, baskoiak eta akitanianarrak. Ez du argitzen euskararen jatorria eta antzinasuna, eta ziurtzat jotzen du lurralde propioa zela, eta inbaditu egin zutela.</p>
<p>Ikus dezagun... Kristo aurreko bigarren mendean, erromatarrek iritsi ziren penintsulara hemendik, eta penintsula osoa konkistatu zuten. Euskal lurretara ere iritsi ziren, eta gelditzeko gogoz iritsi ere; hain zuzen ere, 600 urtez egon ziren. Erromatarren konkistak ekarri zuen gauza onik. Garai hartan, galzadak eta zubiak eraiki zituzten erromatarrek. Nekazaritza modu berriak, mineralen tratamenduak eta taktika militarrek erakutsi zizkieten euskaldunei. Gainera, lehenengo hiriak sortu ziren; besteak beste, Pompeya; bai, Iruñea [].</p>	<p>— Erromatarren inbasioa: K.a. II. ala K.a. III. mendea? — Iruñea ez da Pompeya, Pompaelo baizik.</p>
<p>Entzun al duzu ezer Orreagako guduari buruz? Bada, gudu horretan, euskaldunek frankoak garaitu zituzten. Zer gertatu zen gero? XII. mendean, herri islamiarrak, musulmanak, penintsulara sartu ziren, inolako zailtasunik gabe. Denbora oso laburrean, dena okupatu zuten, hona iritsi arte. Une horretatik aurrera, frankoen eta musulmanen artean harrapatuta gelditu ziren euskaldunak. Frankoen eta musulmanen mehatxu bikoitz horren aurrean, Iruñean gero eta egitura eta antolaketa politiko handiagoa eratuz joan zen, eta X. mendean erresuma bat eratu zen, Iruñeko Erresuma. Eta euskaldunek beren lehenengo erregea izan zuten, Eneko Aritza. Hurrengo urteetan, euskaldunen erresuma zabalduz joan zen, eta lurralde gehiago hartzen. Begira, XI. mendearen hasieran, Antso Nagusia erregea buru zela, eremu hau guztia hartu zuen. Harrigarria da, ezta? Erresumaren urrezko urteak izan ziren; artean Iruñeko Erresuma zen. Mende bat beranduago, Antso Jakituna erregeak erresumaren izena aldatu zuen, eta Nafarroako Erresuma izan zen ordutik aurrera.</p>	<p>— Baskoniako dukerria (edo Gaskoinia): akitanianarren eta baskoien herria. Merovingiar errege frankoek eratua, eta gero dinastia karolingioaren mendekoa. 824an, Nafarroatik banandu zen. Baskonia-Akitania batzea, XI. mendean. — Orreagako gudua: ez ditu aipatzen haren izaera eta arerioak. — Frankoen eta musulmanen artean: eta asturleondarrak (bisigodoak)? — Iruñeko Erresuma, musulmanen aurka? Benetan, lehenengo idatzizko aipamena arabiarrena da, eta lurralde propio egin zuten itun bidez, 718az geroztik. Lotura estua Zaragozako Banu Qasi dinastiarekin. Osperik handienez, Leongo, Palentziako, Zamorako, Kantabriako, Errioxako, Akitaniako eta Aragoiko Pirinioetako lurak okupatu zituen.</p>

<i>Historia de los vascos en 10 minutos</i> bideoaren transkripzioa	Iruzkin kritikoak
<p>Egin dezagun eten bat, zenbait gauza argitzeko. Gogoratuko duzunez, erromatarren aurretik, Baskonia esaten zioten herri bat eta bertako biztanleak, baskoiak, genituen. Eta horrela izan zen zenbait mendez, baina, pixkanaka, izen desberdinak erabiliko dira lurralde horretan bizi diren taldeentzat. Alde batetik, nafarren taldea dugu; ikusiko duzun bezala, antolaketa-maila handiagoa zutenez, haiek izango dira historiaren protagonista nagusiak. Bizkaitarren beste talde bat, gipuzkoarren beste bat eta arabarren beste bat ditugu. Eta Pirinioen beste aldean, eremu bati Zuberua esango zaio, eta, beste bati, Lapurdi.</p>	<p>— Sei herrialdeak, egungo osaerarekin, Erdi Aroan? Ez. Beste kontu bat da X. mendearen inguruan lurraldeei buruzko erreferentzia historiko-toponimikoak egotea. Bizkaiaren, Arabaren eta Gipuzkoaren gaur egungo osaeraren «antzeko» osaera bat bai, XIII. mendekoa da. Estatuko probintzia-sistema ez zen ezarri XIX. mendera arte.</p>
<p>Itzul gaitzen historiara. XII. mendea. Nafarroako erresuma txikitu egin da, eta honelakoa da. Adi orain, penintsulako mapa aldatu egin baita. Penintsulan bi erresuma handi sortu dira. Hau, Gaztelako erresuma, boteretsuena, eta beste hau, Aragoikoa —hasieran, esan behar da, Nafarroako erregeen mende zegoen—. Horiek musulmanak penintsulatik kanporatuz joan dira. Orain, presioa eragiten dute euskal lurretan, eta, orduan, Nafarroako erresuma indarra galtzen hasten da. Lehenbizi, Bizkaia Gaztelaren alde jartzen da. Gero, data garrantzitsu bat iristen da, 1200. Gaztelak Gasteiz konkistatzen du, eta, bide batez, Gipuzkoa ere bereganatzen du. Ikusten duzun eran, Nafarroak protagonismoa galtzen du, eta gaur egun duen lurraldera mugatuta gelditzen da.</p>	<p>— XII: Nafarroako Erresuma, Euskal Herri penintsularra eta Nafarroa Beherea? — Bizkaia Gaztelara. Gasteizen konkista XIII. ean eta Gipuzkoa ere bereganatu (¿?). Ez du azaltzen Antso XV.aren heriotzaz geroztik gertatzen diren muga-mugimenduen, dinastia-banaketen eta abarren konplexutasuna. XIII. mendean sortu zen foru-sistema euskal lurraldeetan, eta XVI.-XVII. mendeetan finkatu zen; XVIII. mendean hasi zen haren krisialdia. Beste alde batetik, Nafarroako Erresuma, 1234. eta 1512. urteen artean, dinastia «aloktonoek» zuzenduta egon zen (Xanpaina, Kapet, Evreux, Trastamara, Foix eta Albret dinastiak).</p>
<p>Zer zegoen Pirinioetatik iparraldera? Bada, dukerri bat, Baskoniakoa. Frankoen eremua izaten jarraitzen du, baina, hemen, duke baskoi batek agintzen du, eta nahiko autonomia du; ez du frankoei azalpen handirik eman beharrik. Hori bai, ez zen inoiz Nafarroako Erresumarekin batu. Hurrengo mendeetan, Gaztelak eta Aragoik presioa egiten jarraitu zuten. Hori horrela, tentsioa handia zenez, bi joera nagusitu ziren nafarren artean: agaramontarrak eta beaumontarrak. Agaramontarrek Nafarroako Erresumaren pean jarraitu nahi zuten. Beaumontarrek, aldiz, Gaztelako Erresumara igaro nahi zuten.</p>	<p>— Tentsio handia Gaztelaren eta Aragoiren artean: agaramontarrak eta beaumontarrak (bi alderdiak nafarrak ziren) (Gaztelarekin batzea). Beste lurralde batzuetan bandokideen artean izandako gatazka etengabeen tokiko bertsioa da (oinaztarrak [=beaumontarrak] eta ganboatarrak [=agaramontarrak]).</p>

<i>Historia de los vascos en 10 minutos</i> bideoaren transkripzioa	luzkin kritikoak
<p>Eta, horrela, xv. mendea iritsi zen. Penintsula honela gelditu da. Erreparatu jokaldiari. Elisabet Gaztelakoa erregina eta Fernando Aragoikoa erregea ezkondu egin ziren, eta ez elkar maite zutelako, baizik eta beren bi erresumak errege-erregina beren pean batzeagatik. Espainiako errege-erregina izena hartu zuten, eta konkistarekin jarraitu zuten. Hasteko, Granadako Erresuma zena hartu zuten. Zer falta zaie guztia lortzeko? Nafarroa. 1512an Nafarroako Erresuma konkistatu zuten. Horrela, nafarrak errege-erregina espainiarren mende gelditu ziren. Baina, adi, garrantzitsua den zerbait gertatu baitzen. Errege-erreginek bere foruei eusteko aukera eman zioten Nafarroari.</p> <p>Zer esan nahi du horrek? Bada, autonomia sendoa izaten jarraitzen dutela; hau da, ia-ia beren burua gobernatzen jarraitu ahal izan zuten, eta horrela izan zen hurrengo urteetan. Hori bai, bizkaitar, gipuzkoar, arabar eta nafar ugarik aukera baliatu zuten, eta, espainiar monarkiaren mende zeudenez, hango politketan parte hartu zuten. Hori horrela, mundua konkistatzeko gogoekin bat egin zuten askok, eta Ameriketera joan ziren. Horregatik aurkitu ditzakegu hainbeste abizen euskaldun Atlantikoaren beste aldean.</p>	<ul style="list-style-type: none"> — Fernando Aragoiok konkistatu zuen Nafarroa (1512), eta ez Errege-erregina Katolikoek zehazki, Elisabet zenbait urte lehenago hila baitzen. — Nafarroak foruei eusten die, eta erresuma izaten jarraitzen du. — Zehazki, garai hartan ezin da «Espainiari» buruz hitz egin. Nazionalismo espainiarraren irakurketa ideologiko bat da, frankismoaren garaian azpimarratu zena bereziki; batzuek diote 1812ko Konstituziora arte ezin dela Espainiari buruz hitz egin; «Espainiako Erresumez» edo «Espainiez» hitz egin behar dela. — Garrantzitsua da, halaber, «Koroa» eta «Erresuma» bereiztea. — Euskaldunek Amerikaren konkistan izandako parte-hartzea Gaztelako Erresumako administrazioarekin eta armadarekin zuten lotura estutik sortu zen.
<p>Historiak aurrera jarraitzen du. 1700. urtea. Ezaguna egiten al zaizu Espainiako Ondorengotza Gerra? Orduan gertatu zen. Orain azalduko dizut. Une hartako Espainiako erregea, Karlos II.a, seme-alabarik gabe hil zen. Beraz, jokoan dago nor izango den hurrengo erregea. Orain, bi potentzia europar ditugu. Alde batetik, Frantzia dago, borboitarren dinastia erregetzan dela. Eta, beste batetik, Austria, Karlos artxidukearekin; bere familiako norbait jarri nahi du Espainiako tronuan, botere gehiago izateko. Horren guztiaren ondorioa: Espainiara eraman zituen tropak, eta gerra hasi zen bi alderdien artean, honela gutxi gorabehera: gipuzkoarrak, nafarrak, arabarrak eta bizkaitarrak borboitarren alde jarri ziren, haien alde borroka egin zuten, eta ondo atera zitzaizen, austriarrak erretiratu egin baitziren, eta Filipe Borboiok bereganatu baitzuen erregetza. Filipek foruak kendu zizkien penintsulako lurralde guztiei, lau euskal lurraldeei izan ezik, haien babesa eskertzeko. Eta, gogoan izan, foruak izatea autonomia eta autogobernu handiagoa izatea zen.</p>	<ul style="list-style-type: none"> — Hain zuzen ere, Filipe V.ak berretsi zituen foruak, eta beste lurralde batzuek, berriz, galdu egin zituzten, hala nola Kataluniako Printzerriak.

<i>Historia de los vascos en 10 minutos</i> bideoaren transkripzioa	Iruzkin kritikoak
<p>XVIII. mendearen bukaera aldera Euskal Herriarentzako garai izugarri txarra hasi zen. Ikus dezagun zer gertatu zen. Alde batetik, Frantziako Iraultza gertatu zen, eta guztientzako berdintasun soziala ezarri zen Frantzian; frantziar guztiak berdinak dira. Zer esan nahi du horrek? Bada, beste gauza batzuen artean, ez dela onartzen euskaldunek beren burua ez jotzea frantziartzat. Esan dizut; guztiek berdinak izan behar dute. Paristik armada bidali zuten euskal lurretara, eta bertako milaka biztanle iparralde-rantz eraman zituzten arrastaka. Euskaldun asko hil ziren, baldintza jasanezinetan bultza egiten zieten bitartean. Orduetik aurrera, euskal eremuak autonomia osoa galdu zuen. Gogoratu dukerria; bada, guztiz Parisen mende egotera igaro zen. Hegoaldean, bien bitartean, borboitarrek jarraitzen dute erregetzan, baina, orain, oso zentralistak dira. Hau da, guztia hemendik erabaki behar da, eta, beraz, gero eta gutxiago gustatzen zaie arabarrek, bizkaitarrek, nafarrek eta gipuzkoarrek beren foruak izatea.</p>	<p>— Prozesu zentralizatzaile jakobinoak frantziar lurralde osoan eragin zuen, ez Iparraldean bakarrik. Gertakariak izan ziren (Pinet eta Cavaignac buru zirela) Lapurdin (errekrutatzeak, konfinamendua, atxilotetak, fusilamenduak), Terrorearekin eta Espainiarekiko gerrarekin (1793) lotuta, eta Gipuzkoan ere bai.</p>

<i>Historia de los vascos en 10 minutos</i> bideoaren transkripzioa	luzkin kritikoak
<p>Eta, ikusten duzu, berriz ere foruekin bueltaka gabiltza. Hori horrela, presio handia egin zuten foruak kentzeko. Eta presio horren ondorioz, Karlistaldiak sortu ziren. Entzungo zenuen zer bait horiei buruz, ezta? Gelditu gaitzen berriz ere. Fernando VII.a hil egiten da, eta erregetza hauen artean lehiatzen da: Isabel, bi urteko haur bat, eta haren osaba Karlos. Karlos foruei eusteko prest dago. Hortaz, lau lurraldeak, pentsa dezakezun bezala, haren alde jartzen dira. Horrek bi gerra zibil eragin zituen: Karlistaldiak. Bueno, hiru izan ziren, baina bigarrena ez zen euskal lurretan gertatu. Borboitarrak eta karlistak elkarren aurka borrokan, norik galdu zuen? Karlistek. Eta, zer gertatu zen? Bada, zigor gisa, hemengo hiru lurraldeek foruak galdu zituzten behin betiko, eta Nafarroako Erresumari izen hori kendu zioten, eta probintzia hutsa izatera pasatu zen, Nafarroa, «erresuma» hitzik gabe. Penintsulako lau euskal lurraldeak Espainian integratuta gelditu ziren, Madrilen mendeko lau probintzia gisa; gaur egungo mapa, alegia.</p>	<ul style="list-style-type: none"> — Ez da esplizitatzen bai Isabel bai Karlos borboitarrak zirela; agian, Euskal Herriaren eta borboitarren (gaur egun arte luzatuko da erregetza) dinastiaren arteko ustezko antagonismoa azpimarratu nahi delako. — Karlistaldien kausak konplexuak dira: gatazka politikoa (liberalismoaren eta absolutismoaren artean), erlijio-gatazka (antiklerikalen eta integristen artean) eta foraltasuna (foru-berezitasunak defendatzen dituztenen eta homogeneizazio fiskala defendatzen dutenen artean). Zentzu horretan, Zaratiegik, Zumalakarregi jeneralaren laguntzaile eta idazkari nagusi izan zenak, bere <i>Vida y hechos de don Tomás de Zumalacárregui</i> (1845) lanean, adierazi zuen akatsa zela esatea nafarrek foruak defendatzeko hartu zituztela armak, 1833an guztiz indarrean zeudelako, eta Nafarroaren altxamenduak helburu bakarra izan zuela: Karlos Maria Isidro infanteak Espainiako erregetzarako zuen eskubidea defendatzea. Aldi berean, Mateo Benigno Morazak (foruzale ezaguna), honako hau esan zuen 1876ko uztailaren 13an Diputatuen Kongresuan emandako hitzaldian: «Herri baskongadoarentzat, ezin zen bilatu haren bihotza modu biziagoan, makalagoan eta sentikorragoan zaurituko zuen arrazoirik, hain erlijioso eta katolikoa izanda, eta ezin da ukatu erlijioaren gaia izan dela gerrarako eragin bakarra nire herrialdean; nire herrikideen ia unibertsaltasunean, hori izan da gerrara eraman dituen arrazoi bakarra; baina foruak ez dira izan kausa». — Ez ditu kontuan hartzen mende batean zehar izandako aldaketak, I. Karlistalditik III.era bitartean. — Ez da azpimarratzen Nafarroak eutsi egin ziela foruei III. Karlistaldiaren ondoren, eta zergatik.

<i>Historia de los vascos en 10 minutos</i> bideoaren transkripzioa	Iruzkin kritikoak
<p>Ikusten duzunez, orain inoiz baino gehiago, euskal herriak autogobernu-ahalmena galdu du. Eremu hau Parisen mende dago, eta beste hau, Madrilen mende. Euskaldunek beren gerrak galdu dituzte, baina beren eskubideak eta identitatea defendatzeko gogoz jarraitzen dute. Nafarroan, euskal idiosinkrasiaren aldeko mugimendu intelektual eta kultural handi bat sortzen da, eta, Bizkaian, Sabin Arana agertzen da, eta, foruez harago, independentziari buruz hitz egiten hasten da. PNV alderdia eratzen du, ikurrina sortzen du eta Euskadi izena erabiltzen hasten da. Gerora, Gipuzkoari, Bizkaiari eta Arabari bakarrik erreferentzia egiteko erabiliko da izen hori. Bultzada abertzale hori, halere, ez da hazten, bi arrazoiengatik. Alde batetik, mundua gerran dagoelako, Lehen Mundu Gerran. Gerra horrek protagonismoa kentzen dio abertzaletasunari.</p>	<ul style="list-style-type: none"> — Separatismoa Sabin Aranarekin agertu zen argi eta garbi, jatorrian bizkaitarra den formulazio batekin; hau da, benetan independenteak direnak botere-lurralde tradizionalak dira, «lurralde historiko» direlakoak. Horregatik, abertzaletasun jakin bati «bizkaitar» esaten zaio, eta oraindik ere gelditzen dira zenbait hondar, baina oso presente dago inkontziente kolektiboan. Beste alde batetik, Aranak berak ere, bizitzako azken urteetan, uko egin zion abertzaletasun independentistari, «bilakaera espainolista» deritzona izan baitzuen. — Sabino Aranak Euzkadi esaten dio euskal arrazaren herriari, ez Euskadi. — Ez al zen I. Mundu Gerra nazionalismoen garapenaren adierazpen handienetako bat izan?
<p>Beste alde batetik, Espainian, bi diktadura etorri ziren: Primo de Riverarena eta Francorena. Azken hori, dakizun eran, oso gogorra izan zen, eta izu-egoera ezarri zuen berrogei urtez. Milaka pertsona fusilatu zituzten, eta inor ez zen auzartzen diktadoreari aurka egitera. Garai hartan, abertzaletasuna jazarria zen, eta euskara debekaturata zegoen. Ikasle talde bat bakarrik mobilizatu zen Francoren kontra, eta, horrela, 1959an, ETA sortu zen.</p>	<ul style="list-style-type: none"> — Ez ditu aipatzen II. Errepublika eta Gerra Zibila. — Ez ditu kontuan hartzen diktaduraren berrogei urteetan izandako desberdintasunak eta etenak errepresio frankistari dagokionez, ez eta Espainiako eskualdeen artekoak ere.
<p>Hasieran, ETAk propaganda eta mobilizazioak bakarrik egiten zituen. Euskal Herriaren independentzia lortu nahi du. 60ko hamarkadan, borroka armatua hasi zuen, eta Trantsizio espainiarraren garaian ere jarraitu zuen, bai eta demokrazia-garaian ere; hori horrela, gero eta ageriagoa zen euskal gatazka. Euskal gizartea gero eta banatuago dago, ETAREN aldekoen eta ETA arbuizatzen dutenen artean. 2011n, ETAk armak utzi zituen, eta alderdi politikoan eta ideologiaren arteko konfrontazio-aldia hasi zen. Iritsi gara gaurko egunera.</p>	<ul style="list-style-type: none"> — Ez du aipatzen diktaduraren aurkako borroka, hala nola Alderdi Komunista eta ezkerreko beste indar batzuk, langile-mugimendua, Euskal Herritik kanpoko ikasle-mugimendua, erbestetik egindako borroka, etab. — ETAREN indarkeriaren kausen eta ondorioen eta euskal gizarteak haren aurrean izan zituen jarrera-aldaketen azalpen sinplista ematen du.

Iturria: Egileek egina.

«El mito atroz de una rebelión secular» artikulua-ren analisi kritikoa

Jarraian, talde dinamizatzailleak Raúl López Romoren artikulua-ren («El mito atroz de una rebelión secular: Carlistas, gudarís y etarras») funtsezko giltzarri kritikoen aurkezpena egin zuen laburki, agerian uzteko aspaldi zaharreko gatazkaren kontakizunak denbora-, identitate- eta ideologia-jarraitutasun handia ezartzen duela lau gertakari historikoren —bi Karlistaldiak, Gerra Zibila eta ETAren historia— eta haietako egileen eta heroien artean. Gero, analisirako eta eztabaidarako honako jardura hau proposatu zitzaizen ikasleei:

- Aztertu Telesforo Monzónen honako aipamen hau: «Guretzat, Zumalakarregi lehenengo Karlistaldian, Santa Kruz bigarren Karlistaldian, Jose Antonio Agirre 36an nazioarteko faxismoaren kontra eta ETA, garbi esango dut, gerra bera dira. Gerra horrek jatorri hau du: gure herriaren subiranotasuna ostu ziguten».
- Jarri binaka, galdera hauei buruz eztabaidatzeko:

- Zer argudio ematen ditu López Romok bere artikuluan, Monzónen planteamendua zalantzan jartzeko?
- Zer erantzun eta galdera eragiten ditu López Romoren planteamenduak?

Binaka lan egin ondoren, parte-hartzaileek bateratze-lana egin zuten beren gogoeta nagusien inguruan. Adibide gisa, haietako batzuk jasoko ditugu hemen:

«Bueno, nik Gerra Zibilaren gaiari buruz hitz egingo dut [...]. Artikulu horren arabera, kontaktzen digute euskaldunok bando nazionalaren aurka borroka egin genuela, eta fusilamenduen eta abarren eragin handiena jasan genuela. Baina ez da horrela, Nafarroa, Araba eta Gipuzkoaren zati batek bando nazionalaren alde borrokatu ziren; beraz, esan daiteke euskal gizartean jada bazegoela nolabaiteko haus-tura bat, ez zela euskal herria espainiar herriaren kontra. Gero, dirudienez, Euskal Herria ez zen izan errepresio frankista gehien pairatu zuen eremu-tako bat []» (3. l.).

«Nik, [] ulertu nuenagatik, ez dakit eskoletan ikasitakoagatik, nire aitonagatik edo norengatik, baina nik ulertzen dut euskal lurraldean hainbeste fusilamendu ez egoteko arrazoietako bat izan zela inguru honetan Espainiako gainerako lekuetan baino industria gehiago

zegoela Agian hemen industrialak behar ziren, jendea behar zen, behintzat postu jakin batzuetarako lan espezifikoagoa behar zen, eta industriari eta metalurgiari eutsi nahi bazioten, agian ezin zuten hainbeste jende fusilatu [] Gero, ez dakit erlijioak zerikusirik izan zuen, agian tradizionalistagoak diren eremu batzuk egote horrek []» (2. I.).

«Niri bitxia iruditu zait, izan ere, nik ez neukan pentsatuta Espainia osoan, bere horretan, zenbat sufritu duen Espainiak, eta ez Euskadik bakarrik, eta izugarriak iruditu zaizkit zenbakiak eta zifrak. Izan ere, nik buruan oso sartua nuen Euskadi zela gehien sufritu zuena; ikaragarria izan da hori guztia, eta horrela ikusteak harridura eragin dit []» (5. I.).

«Ni harritu nau jakiteak Euskaltzaindia dagoeneko euskara batua aurkezteko lanetan ari zela 1968an, eta ikastolak zeudela [...] Zalantzarik gabe, niri irakatsi izan didate, batez ere nahiko ideologia markatua zuten irakasleek gidatutako euskara irakasgaietan, beti irakatsi izan didate, eta nik uste nuen, errepresio kulturalak askoz ere gehiago iraun zuela []» (2. I.).

«[] Nik jakin nahi nuke zergatik sortzen den guk dugun bereizte-sentimendu hori; izan ere, egia da, nik ez dakit oharkabean edo historiako eskoletako irakasleek hala kontaktzen zutelako [] nire buruan berehala sortzen zen agertoki hori; espainiarrak eta euskaldunak are-rioak zirela, eta euskaldunak potrozorri bat zirela espainiarrentzat edo frankistentzat, eta haiak beti zutela euskal identitatearen kontra erasotzeko eta euskal herria akabatzeke asmoa []» (4. I.).

Bateratze-lana egin ostean, eta López Romoren planteamenduari jarraituz, talde dinamizatzaileko kideek aspaldi zaharreko gatazkaren kontakizunarekin lotutako sinesmen errotu nagusiak laburbildu zituzten, eta zalantzan jarri zituzten, honako taula honetan jaso den eran.

6. KOADROA

**Aspaldi zaharreko gatazkaren kontakizunarekin lotutako
sinesmen batzuk kritikoki zalantzan jartzea**

Sinesmen errotuak	Sinesmenak zalantzan jartzea
Euskaldunen eta espainiarren arteko erabateko aurkakotasuna	— Une historiko jakinetan, itunak eta jarraitutasunak egon izan dira euskaldunen eta espainiarren artean. Adibidez, euskal karlistek eta erreketek 36ko altxamendua babestu zuten, eta Agirrek gudariz (abertzaleak) eta milizianoz (ezkertiar ez-abertzaleak) osatutako armada bat zuzendu zuen.
Karlistaldiak eta Gerra Zibila euskaldunen eta espainiarren arteko gatazka gisa interpretatzea	— Euskal gizarteko kideen arteko zatiketak eta lehiak lehen bi Karlistaldietan eta Gerra Zibilean. — Karlistaldiek agerian utzi zuten euskal gizartean kontrajarrita zeudela mundu ikuskera absolutista eta liberala. Tomas Zumalakarregik ¹ eta Santa Kruz apaizak gorpuztu zuten lehenengoa, eta Migel Zumalakarregik bigarrena. — Gerra Zibila hasi zenean, Euskadiko joko-zelai politikoa «triangelu aldekide» bat zen, abertzalez, ezkertiarrez eta eskuindar espainolistez osatua, eta ez dira ikusezintasunean utzi behar azken bi horiek, ez eta ahaztu behar ere bertakoek parte hartu zutela Francoren estatu-kolpean.
Matxinada-tradizio etengabea independentziaren alde (150 urteko gerra)	— Borrokaren helburuetan, identitate politikoetan eta gertakari bakoitzaren eragileetan, argi eta garbi, ez dago jarraitutasunik. Adibidez: <ul style="list-style-type: none"> • XIX. mendeko euskal identitateak abertzaletasun bikoitza zuen ezaugarri, euskalduntasuna espainiartasunarekin guztiz bateragarria baitzen. • Bi karlistaldietako batean ere ez zen egon eduki abertzale edo separatistarik. • Gainera, kontraesan sakona dago karlismoaren izaera kontserbadorearen —«Jainkoa, aberria eta erregea» hirukoak gidatua— eta gaur egun bere buari ezker abertzale esaten dion horren ustezko helburu politikoen artean.
Euskaldunek aparteko kaltea jasan izana	— Karlistaldietan zehar, liberalen eta kontserbadoreen arteko norgehiagoka bera gertatu zen Euskadin eta Nafarroan, Katalunian, Gaztelan eta Maestrazgoan. — Gerra Zibilean, Gernika ez zen izan bonbardatutako leku bakarra. Madrilek eta Bartzelonak ere jasan zituzten bonbardaketak, eta luzeagoak eta ankerragoak izan ziren gainera. — Gerraondoan, erreprezio fisikoaren indizeak (exekutututako pertsonak) txikiagoak izan ziren Euskadin, Espainiako beste eskualde batzuekin alderatuta.

Iturria: Egileek egina, López Romoren lanetik (2019:11-25) ateratako datuetan oinarrituta.

Gero, kontraste-jarduera bat egin zen, Gernikako bonbardaketa eta Gerra Zibilean zehar Espainian gertatutako beste zenbait bonbardaketa

¹¹ Bitxia da, adibidez, Zumalakarregik, Lehen Karlistaldian Bilbo setiatu zuenak, kale bat izatea hirian, Zumalakarregi etorbidea, eta Espartero jeneralak, aldiz, hiria askatu zuenak, jeneral espainiarra zenez, kale bat zuen, baina izena aldatu zioten.

nola aurkezten ziren ikusteko. Aspaldi zaharreko gatazkaren kontaktuzunak Euskadiren eta Espainiaren mendetako norgehiagoka konponezinaren beste adierazpen historiko bat izango balitz bezala aurkezten du Gerra Zibila. Testuinguru horretan, Gernika —foru-tradizioarekin lotutako antzinako euskal askatasunen eta abertzaletasunak horri buruz egiten duen interpretazioaren ikur— beste adibide bat da Euskal Herria suntsitzera bideratutako Espainiaren proiektu genozidan. Horregatik, kausa-indar erabakigarria bihurtzen da, derrigorrean indarrez erantzuteko beharra ekarri zuena. Ahaztu gabe identitatearen faktorea elementu erabakigarria izan zela gerra-gatazkan, haren azalpen konplexuago batek beste zenbait faktore kontuan hartu behar ditu. Faktore horien arabera, gerra-gatazka Gerra Zibilaren esparru orokorrean kokatzen da, alde errepublikanoaren eta alde nazionalaren artean, eta ez Espainiaren eta Euskadiren arteko konfrontazioan.

— Hasteko, Gernikako, Madrileko, Bartzelonako eta Malagako bonbardaketen maiztasunei, intentsitateei eta biktima-kopuruei buruzko informazioa alderatu zen, eta agerian gelditu zen Espainiako lurraldeko beste bonbardaketa batzuek suntsiketa eta heriotza gehiago eragin zutela, baina, halere, ez zirela interpretatu zenbait hamarkada geroago indarkeriaren erabilera justifikatzeko elementu gisa. Adibidez, zenbait azterlanen arabera, Bartzelonan ia 2.500 hildako egon ziren; Madrilan, ia 2.000; Málaga-Almerían (La Desbandada), 3.000 hildakotik 5.000ra, eta Gernikan, 1.650 biktima, gutxi gorabehera.



La Desbandá NORMAN BETHUNE

- Gero, dimentsio estrategikoa aipatu zen; horren arabera, ulertzen da Kantauriko Kanpainan bonbardatutako hiri ugarietako bat izan zela Gernika. Xedea zen bando nazionalak Espainiaren iparraldea hartzea —Errepublikari leial izaten jarraitzen zuen, baina lurrez isolatuta zegoen gainerako eremu errepublikanoetatik—, eta atzeguardia ahultzea. Elementu hori ulertzen laguntzeko, Gerra Zibilean zehar bataila-fronteek izandako bilakaera azaltzen duten hiru mapa erakutsi zitzaizkien ikasleei, bai eta Kantaurialdean bonbardatutako zenbait hiriri buruzko informazioa ere.
- Gainera, azpimarratu zen Kantaurialdeko eremuak garrantzi estrategikoa ere bazuela, meatze- eta industria-baliabide ugari zeudelako (siderurgia- eta arma-lantegiak) eta itsasora sarbide zuzena zuelako.
- Beste alde batetik, azpimarratu zen, neurri handi batean, Espainiako herrietan egindako bonbardaketak «gerra-esperimentu» moduko bat izan zirela. Gerra Zibila proba-eremu bihurtu zen Alemania naziarentzat eta Italia faxistarentzat, bereziki hirietan aireko bonbardaketak egiteari zegokionez.

Saioan zehar, beste alderaketa-jarduera bat egin zen, Gerran eta gerraondoan zehar Euskadin eta Espainiako beste zenbait lekutan izandako errepresio fisikoari buruzkoa. Aspaldi zaharreko gatazkaren kontakizunaren arabera, Euskadik pairatu zuen errepresio ankerrena diktadura frankistan zehar. Alabaina, berriki egindako zenbait azterlanek agerian utzi dute gerraondoko errepresio fisikoa arinagoa izan zela Euskadin beste eskualde batzuekin alderatuta. Hori egiaztatzeko, zenbait ebidentzia eman zitzaizkien ikasleei:

- Espainiako lurralde osoan exekutaturako, eraildako edo indarrez desagerrarazitako biktimen hobien banaketaren mapa bat.
- Gerra Zibilean eta geroko gerraondoan izandako errepresio politikoaren biktimei buruzko datuak biltzen dituzten bi taula, Espainiako zenbait eskualde eta probintzia alderatzen dituztenak.
- Indar politiko desberdinetako euskal borrokalarien eta exekutatuen ehunekoak alderatzen dituen taula bat.

1. TAULA

Gerra Zibilean eta geroko gerraondoan Espainiako probintzia batzuetan exekutututako pertsonen ehunekoa biztanle guztiekiko

Espainiako eskualdeak/probintziak	Exekutututako pertsonen ehunekoa biztanle guztiekiko
Euskadi	0,16
Katalunia	0,12
Gaztela-Leongo egungo probintzietako sei	0,40
Segovia, Salamanca eta Soria	0,20
Valladolid	1,00

Iturria: Egileek egina, lan hauetan oinarrituta: Zubiaga, Erick (2017), *La represión franquista de guerra y postguerra en el País Vasco a debate: ente el exterminio y el oasis*. Historia y Política 37, 357.-384. or.; Rivera, Antonio eta Gómez, Javier (2015), *Siempre se recuerda lo que nunca ocurrió: represión franquista y memoria colectiva en el País Vasco*. XX. mendeko indarkeria politikoari buruzko nazioarteko hizketaldian aurkeztutako komunikazioa. Lisboa, 2015/03/12-14.

2. TAULA

Errepresio fisiko frankistaren biktimak (exekutatuak eta desagertuak) Espainiako zenbait probintzian

Probintziak	Errepresio frankista	
	Hasierako azterlanak (2005era arte)	Memoria historikoa berreskuratzeko elkarteak Garzón epaileari aurkeztutako zerrenda izendunak (2008ko iraila)
Araba	157	1.900
Gipuzkoa	500	
Bizkaia	—	
Nafarroa	3.094	3.920
Asturias	5.952	5.952
Badajoz	6.446	7.603
Kordoba	9.579 (+756)	11.910
Granada	5.048	8.500
Huelva	5.455	6.219
Sevilla	8.000	11.694
Málaga	7.000	9.000
Espainia guztira		130.139

Iturria: Espainiako Gerra Zibilean izandako errepresioaren gutxi gorabeherako balantzea, gaiari buruzko argitalpenetan jasotako datuetan oinarrituta (2013/07/07an eguneratua). Historialari zaleen eta sortzaileen ongintzazko elkarteak <http://www.sbhac.net/republica/Victimas/repres.htm>

3. TAULA


Euskal borrokalarien ehunekoak, eta Bizkaiko, Kantabriako eta Asturiasko gerra-kontseiluen ostean exekutaturako euskal herritarren ehunekoak

Indar politikoa	Euskal borrokalarien ehunekoa	Euskal exekutatuaren ehunekoa
Anarkista	7,4	9,4
Komunista	20,0	10,8
Sozialista	19,5	30,0
Errepublikanoa	6,6	7,7
Eusko Abertzale Ekintza	4,5	3,0
Abertzalea	41,7	1,0

Iturria: Egileek egina, lan hauetan oinarrituta: Zubiaga, Erick (2017), *La represión franquista de guerra y postguerra en el País Vasco a debate: ente el exterminio y el oasis*. Historia y Política 37, 357.-384. or.

Gero, Euskadin errepresio fisiko gutxiago zergatik egon zen azaltzen lagundu dezaketen zenbait arrazoiri buruz eztabaidatu zen, eta, besteak beste, azpimarratu zen Elizak eta karlista arabarrek bitartekaritzaren lanak egin zituztela, horiek uste baitzuten euskal abertzaleak, nahiz eta alde errepublikanoan parte hartu izan, «berreskuragarriak» zirela, oso katolikoak zirelako, eta, beraz, ez zirela hain gogorki zigortu behar. Aurreko hori erraz ulertzen da gogoratuz gero 36ko altxamendu militarra babestu zuten Elizako hierarkiak eta biztanleriako sektore nabarmen batzuek erlijio-gurutzada gisa ulertu zutela gatazka hori. Eragina izan zuen, halaber, Santoñako Itunaren bidez (1937ko abuztua) abertzaleak bizkor errenditu izanak, eta abertzaleek beste indar politiko batzuekin alderatuta errepresio gutxiago pairatu izanak (ikus 3. taula).

Errepresio fisikoari buruzko datuak aztertu ostean, saioa bukatzeko, errepresio ekonomikoari eta kulturalari buruzko gogoeta bat egin zen; horiek eragin nabarmena izan zuten Euskadin, Espainiako beste eskualde batzuetan baino handiagoa. Erbesteaz, langileen purgez, isunez, ondasunen konfiskazioez eta abarrez gainera, euskara eta euskal ohitura kulturalak jazarri ziren adierazpen publiko guztietan. Alabaina, azpimarratu zen errepresio hori Katalunian eta Galizian ere egin zutela, eta 50eko hamarkadaz geroztik berreskuratze-prozesu bat hasi zela: lehenengo ikastolak sortu ziren, asko erdiklandestinitate-egoeran, eta euskara batzeko ahaleginak egin ziren (euskara batua).



Iturria: Egileek egina.

3. KONTZPTU-MAPA

Euskal herriaren homogeneotasunaren eta espainiar herriarekiko polaritatearen suposizioak zalantzan jartzea

7. saioa. **Euskal herriaren homogeneotasunaren eta espainiar herriarekiko polaritatearen suposizioen azterketa kritikoak (2020ko maiatzaren 12a)**

Helburuak:

1. Euskal herriaren homogeneotasunaren suposizioaren sinplifikazioak dakarren arazoa identifikatzea eta ulertzea.
2. Euskal gatazka delakoan parte hartu duten eragileen dibertsitatea eta biktimen, biktimaegileen eta iritzi publikoaren ikuspuntuen aniztasuna aitortzea.

Bi helburu horiek funtsezkoak dira indarkeria legitimatzen duten diskurtsoak zalantzan jartzeko. Izan ere, «gu» horren ustezko homogeneotasuna dela-eta, ezkutatu egiten dira euskal identitatea zer den azaltzen duten diskurtso nagusiekin bat ez datozen ikuspuntuak, eta ahots disidenteak traidore gisa agertzen dira, eta, beraz, indarkeriaren zigorra merezi dutela argudiatzen da. Beste alde batetik, sinplifikazio horren ondorioz, ezinezkoa izaten da identitate mestizoak (aldi berean euskaldun eta espainiar sentitzea, adibidez) onartzea, edo ulertzea identitate politikoetan ñabardurak daudela; hots, posible dela abertzale izatea independentista izan gabe, edo independentista izatea indarkeriaren erabilera babestu gabe.

Saioa bi zatitan banatu zen:

- Lehenbizi, talde dinamizatzaileak euskal gatazkan eta haren indarkeriazko bilakaeran parte hartu duten eragileen aniztasunari buruzko aurkezpen bat egin zuen; aurkezpenean, halaber, azaldu zituzten denboran zehar ETAn, iritzi publikoan, biktimen artean eta haien ikusgarritasunean gertatutako aldaketak eta hausturak.
- Bigarrenik, ikasleek tailer batean parte hartu zuten, eta ahots eta ikuspuntu desberdinak adierazten zituzten zenbait iturri aztertu zituzten.

1. zatia. *Eragileen eta ikuspuntuen aniztasunari buruzko aurkezpena*

Jarraian, aurkezpeneko ardatz nagusiak laburbilduko ditugu; agerian geldituko dira ETAn gertatutako hausturak eta eraldaketak, bai eta iritzi publikoan eta indarkeriaren biktimen artean izandakoak ere.

ETAREN SORRERA ETA BILAKAERA DIKTADURAN

Aurkezpenari hasiera emateko, ETaren sorreraren analisi bat egin zen. Azalpenaren arabera, 50eko hamarkadaren hasiera aldera, unibertsitateko euskal ikasle batzuek, familia-tradizio erlijioso eta abertzaletatik zetozenek, erantzun egin zuten diktadura frankistaren iraunkortasunaren eta beren nagusien «pasibotasunaren» aurrean (Eusko Alderdi Jeltzalea, EAJ). EKIN taldea eratu zuten, historia eta euskara aztertzea xede zuena. Eusko Gaztedirekin (EAJren gaztedia) bat egiteko ahaleginak porrot egin ostean, 1959ko uztailan, Euskadi Ta Askatasuna eratu zuten. Gerra Zibileko euskal gudariak beren herriaren askatasunaren alde gauzatutako erresistentziaren jarraitzailetzat aitortu zuen bere burua ETak, gatazkaren irakurketa partzial batean oinarrituta.

Hasierako ETarentzat, hizkuntza zen euskal identitatea identifikatzen zuen elementua, eta independentzia aldarrikatzen zuen, eta ez Gerra Zibila hasi eta hilabete gutxira (1936ko urriaren 1a) lortutako autonomia berreskuratzea. Hori horrela, ez zitzaien axola Espainiako erregimen politikoa diktadura, monarkia edo errepublika zen. Frankismoaren garai bete-betean, armen erabilera justifikatzen zen azpimarratuz indarkeria beharrezkoa zela, Estatuaren egiturazko indarkeriari erantzuteko. Alabaina, 60ko hamarkadan, ETak eztabaida gogorra bizi izan zuen, indarkeriazko borroka-aren aldekoen eta Gandhiren erara erresistentzia pasiboko estrategia hartu nahi zutenen artean, azken horrek sektore kristau zabalaren parte-hartzea eta mobilizazioa ahalbidetzen zuelako. Indarkeriaren erabilerak eragiten zituen zalantza moralen aurrean, kontsultak egin zizkieten zenbait euskal apaizi eta erlijiosori. Bada, erantzun antagonikoak jaso zituzten. Gertakariak bizkortu egin ziren, eta gerrilla erako indarkeriaren aldeko tesia izan zen garaile, ekintza-errepresioa-ekintza printzipioarekin bat. 1968ko ekainean, José Antonio Pardines guardia zibil gaztea erail zuen ETak, trafikokontrol batean. Handik gutxira, haren hiltzailea, Txabi Etxebarrieta, guardia zibilek egindako tiroen ondorioz hil zen, eta «lehenengo martiri iraultzailea» bihurtu zen.

ETAren baitan, haustura ideologikoak etengabeak izan ziren, ia hasiera-hasieratik. Hirugarren munduko planteamenduen eragin sendoak —abian zeuden deskolonizazio-prozesuekin lotuta, Sabin Aranek okupazioari buruz landu zituen tesiak eguneratzen zituztenak— eta langile-mundura egindako hurbilketak —Euskadi industrializazio-prozesu sendoa ari zen bizitzen, eta migrazio-olatu handiak jasotzen zituen Espainiako beste eskualde batzuetatik— batzarrez eta banaketaz betetako aldi bat ekarri zuten. ETAren IV. Batzarrean, ideologia sozialistagoa eta obreristagoa hartu zen; paradigma-aldaketa izan zen hori, eta V. Batzarrean erakundearen lehen banaketa ekarri zuen. Kulturalistentzat eta hirugarren munduaren aldekoentzat, osagai abertzaleak eta iraultzaileak batuta zeuden, baina axioma honen pean: Euskadiren kontraesan nagusia nazionala zen; hortaz, abertzale izateari uzten zionak iraultzaile izateari uzten zion. Banaketaren ondoren, ETA Berri (obreristagoa) izeneko sektorea kanporatu zen, eta erakundearen kontrola ETA-Bai edo ETA-Zaharra sektoreak hartu zuen (kulturalistagoa). 1969tik aurrera, eta tradizio abertzalearekiko ibilbide kritiko luze baten ostean, ETA Berri-k Komunistak izena hartu zuen, eta, hiru urte geroago, Espainiako Mugimendu Komunistan (EMK) sartu zen. 1970ean, VI. Batzarra egin zen; autodeterminaziorako eskubidea aitortzen bazen ere, burgesiaren kontrako borrokaren izaera estatala azpimarratu zen, eta, nahiz eta ez zen indarkeria alde batera utzi, kritikoki aztertu nahi ziren haren intentsitatea eta egitekoak. Historikoei, V. Batzarrean garaile atera zirenek, espainolizatzen edo likidazionizatzen jo zituzten jarrera haiek. Pixkanaka, ETA VI indarra galduz joan zen, eta troskismorantz bideratu zen; prozesu hori 1973an bukatu zen, Liga Komunista Iraultzailearekin bat egin zuenean.

ETAk gogor egin zion aurre hiltzeko zorian zegoen diktadurari, Burgosko prozesuarekin (1970) eta Carrero Blancoren erailketarekin (1973). Lehenengoa, ETako militanteen kontra irekitako prozesu bat zen, Melitón Manzanasko polizia —Gipuzkoako Brigada Politikoko Sozialeko burua, torturak egitea leporatzen ziotena— erailtzeagatik. Prozesuaren amaieran, baliogabetu egin ziren epaitegi militar batek ezarritako heriotza-zigorrak, hainbat esparrutatik jasotako presioak zirela eta, baita Vatikanotik ere. Bi gertakari horiei esker, erakunde armatua diktaduraren kontrako borrokaren abangoardiatzat jotzeko joera sendotu zen, eta ez Euskadin bakarrik, baita Estatu osoan eta nazioartean ere. Horregatik, aktibista-kopurua areagotu egin zen nabarmen, eta joera horrek

berdin jarraitu zuen lehenengo hauteskunde demokratikoak iritsi arte. Une hartan, erakundearen baitan inork ez zituen zalantzan jartzen independentismoa edo sozialismoa. Baina oso agerian gelditu ziren «borroka armatua» eta «masen borroka» artikulatzeko moduei buruzko iritzi desberdinak Francoren heriotzaren aurreko uneetan, eta, horren ondorioz, ETA militarra eta ETA politiko militarra bereizi ziren. Haustura hori areagotu egin zen Trantsizio politikoan zehar.

TRANTSIZIOA ETA DEMOKRAZIAREN FINKAPENA

Bere buruari Euskal Nazio Askapenerako Mugimendua (ENAM, edo MLNV gaztelaniazko siglen arabera) izenekoa izan zen ETaren fruitu politikoa. Espainiako Trantsizioan zehar, haustura-alternatiba defendatu zuen, erreforma demokratikoaren aurrean, iritzi hau zutelako: «Franco hil egin da, baina frankismoak jarraitzen du». Adolfo Suárez Espainiako Gobernuako presidentek 1977an amnistiaren alde egindako apustua alde bakarrekoa izan zen, talde biolento batek ere ez baitzuen taldea desegiteko asmorik erakutsi. Bi ETak indarkeria erabiliz jarraitu zuten, eta 1980 odoltsuan —Eusko Legebiltzarrerako lehenengo hauteskundeak egin ziren, Espainia demokratikoan— «beruneko urteak» direlakoak hasi ziren, ETaren fakzioek (polimiliak, Komando Autonomo Antikapitalistak eta, batez ere, miliak) eta ultrasuineko taldeek egindako ekintzen ondorioz. Indarkeriak jarraitzen zuenez, eta diktaduran izandakoez baino askoz ere heriotza gehiagoz jarraitu ere, kartzelak erakunde armatuko preso bete ziren berriz ere. Euskal Iraultzarako Alderdiak (EIA) ofizialki eskatu zuen buka zedila jarduera armatua, eta, aldi berean, une horretan estatu-kolpea (1981eko otsaila) gertatzear zegoen. Estatu-kolpeak ETApn-ren estrategia erroitik aldatzea ekarri zuen: hil horren amaiera aldera, eta barne-zatiketen artean, su-eten mugagabea iragarri zuten, inolako ordain politikorik eskatu gabe, eta Barne Ministerioarekin adostutako gizarteratze-neurri eztabaidatuetera atxiki ziren. Orduz geroztik, ETA militarra izan zen ETA bakarra.

Trantsizio politikoaren hasieran, euskal herritarren erdiak —gazteek, batez ere— idealista edo abertzale gisa ikusten zituzten ETako aktibistak; hirutik batek uste zuen aktibistak benetako arduradunek manipulaturako pertsonak zirela; eta %20k, eroak edo kriminalak zirela. Nahiz eta orduan ekintza biolento gehienak ETaren adarrek egindakoak izan, euskal iritzi publikoari indarkeriaren arduradunei

buruz galdetzen zitzairenean, eskuin-muturra, gobernu zentrala eta iragandako diktadura aipatzen zituzten lehenbizi. Hamarkada bat ge-roago, gizartearen isiltasuna eta iritzia emateko beldurra nabarmen areagotu ziren. Alabaina, iritzia adierazten zutenen %50en iritziz, eroen edo kriminalen banda bat baino ez zen ETA jada. Abertzaletasun-idealismoaren aldeko aukera Herri Batasunako (ENAMen koalizio politikoa) boto-emaeleen %70ek defendatzen zuen, baina ehuneko asko murrizten zen gainerako aukera abertzaletan: %30 inguru Euskadiko Ezkerran (EE) eta Eusko Alkartasunan (EA) eta %16 inguru EAJn¹².

1981eko estatu-kolpearen porrotak eta beren buruari Grupos Antiterroristas de Liberación (GAL) izena jarritako taldeek terrorismoaren kontrako estrategia gisa funtzionatzeak ENAMen pentsamolde biktimista eta erantzuteko indarkeriaren tesia sendotzea ekarri zuten. Hori horrela, ahuldu egin zen euskal gizarteak kaleko manifestazioetan indarkeriaren kontra erakutsitako erantzun sortu berria. Abertzaletasun erradikalaren inguruneak indarkeriaren ideologia elikatu zuen, eta euskal eremu publikoa menderatu zuen; ETAREN aldeko pankartak eta presoek argazkiak jartzen ziren non-nahi, mobilizatzeko deiak etengabeak ziren, manifestazio jendetsuak egiten zituzten, eta beren kideen hiletak eta omenaldiak, heroizat eta martiritzat hartzen baitzituzten.

Bitartean, ETAREN ekintzen biktimei gizatasuna kentzen zitzairen, edo kosifikatu egiten ziren. Gehienak Estatuko Segurtasun Indarretako kideak ziren, eta izaki ikusezin bihurtu ziren, beste alde batera begiratzeko gaitasuna ez zuten. Giro horretan, naturalizatu egin zen indarkeria justifikatzen zuen lengoaiaren ohiko erabilera, eta ez ETATik gertu zegoen sektore politikoaren eta komunikabideen aldetik bakarrik. «Borroka armatua» esaten zuten, «indarkeria» esan beharrean; eta «atentatuak aldarrikatzea» esaten zuten, «eragindako kalteez arduratzea» esan beharrean; «borroka armatua eta erantzun-indarkeria», «indarkeriaren erabilera bidegabea» esan beharrean; eta «iraultza-zerga», «xantaia edo estortzio ekonomikoa» esan beharrean.

¹² Euskal iritzi publikoan izandako eraldaketei buruz gehiago sakontzeko, lan hau gomendatzen dugu: Sáez de la Fuente, Izaskun (2011). *La opinión pública vasca ante la violencia de ETA. Una mirada retrospectiva*. Bilbo: Bakeaz.

EUSKAL GIZARTEAREN ERANTZUNAK, INDARKERIAK AURRERA JARRAITZEN ZUELA IKUSITA

80ko hamarkadaren bukaera eta 90eko hamarkadaren hasiera aldera, bi mugimendu mota sortu ziren, Euskal Herriko gatazkaren ikuskerari buruz eta gizarte zibil antolatu gisa zuten eginkizunaz planteamendu erabat desberdinak ekarri zituztenak: lehenengo, Euskal Herriko Bakearen Aldeko Koordinakundea eta, gero, Elkarri/Lokarri.

7. KOADROA

Bakearen Aldeko Koordinakundearen eta Elkarriren arteko desberdintasun-ardatz nagusiak

Bakearen Aldeko Koordinakundea	Elkarri
<ul style="list-style-type: none"> — Indarkeria eta politika bereiztea. Identitate- eta politika-gatazka bat egoteak ez du indarkeria justifikatzen. — Biktimak ardatz; indarkeria deslegitimatzearen (horregatik eslogana: «ez nire izenean») eta euskal gizartearen aniztasuna aitortzearen aldeko apustua. — Bakeak ez du prezio politikorik. Sistema autonomikoaren eta haren garapen osoaren legitimotasun demokratikoaren defentsa, bai eta aldaketak egiteko aukerarena ere, baldin eta gehiengoak nahi baditu eta demokratikoki berresten badira. 	<ul style="list-style-type: none"> — Indarkeria gatazka politiko baten ondorio zuzena eta saihetsezina da. — Bitartekaritzaren ikuspegia ardatz. — Bakea lortzeko, estatus quoaz harago doan adostasun politikoa behar da. Gatazka konpontzeko eta bakea lortzeko, indarkeriaz adierazten diren bi alderdien arteko elkarrizketa bideratu behar da. Horregatik, Bake Biltzarrak egitearen aldeko apustua.

Iturria: Egileek egina.

Indarkeria errutina bihurtuta zegoen garaian, Euskal Herriko Bakearen Aldeko Koordinakundeak errutina horri erantzunaren errutina kontrajarri zion, «isiltasunaren ahotsa». Heriotza bakoitzaren ostean, pertsona-talde txikiak agertzen ziren kaleetan; isilik eta giro estuan, indarkeria behin betiko uztea eskatzen zuten hamabost minutuz. Mugimendu bakezaleko kideek indarkeria mota guztiak kondenatu zituzten, ETArena zein estatu-terrorismoarena.

1987an, talde terroristak bi sarraski kolektibo egin zituen, Hipercorren bat (Bartzelonako supermerkatu handi bat zen), eta Zaragozako Guardia Zibilaren kuartel-etxean bestea, eta euskal eta espainiar herri-tarren zati handi bat asaldarazi zituen horrek. Erakunde terroristaren

hurbileneko giroek beren jarrerei eutsi bazieten ere, komunitate-mugak higatu egin ziren. Halaber, kutsu ekologistako zenbait sektore abertzale ere bereizi egin ziren indarkeria-estrategiatik, instrumentalki besterik ez bazen ere. Esparru horretan, erraz uler daiteke Elkarriren sorrera; Leitzarango autobidearen eraikuntzari buruzko gatazkaren harira sortu zen, eta elkarrizketaren eta akordioaren aldeko mugimendu sozial gisa agertu zen iritzi publikoaren aurrean.

Hain zuzen ere, atentatu indiskriminatuak ugaritzeak, erakunde demokratikoak finkatzeak eta indarkeriaren kontrako sektore sozialak agertzeak eragin handia izan zuten, eta 80ko hamarkadaren amaieran hamar euskaldunetik zortzik uste zuen indarkeria ez zela beharrezkoa helburu politikoak lortzeko.

SUFRIMENDUAREN ETA HAREN ONDORIOEN SOZIALIZAZIOAREN DINAMIKA

90eko hamarkada Fabio Moreno hauraren erailketarekin hasi zen; hausturak eragin zituen erakundearen baitan. Gero, kupula terrorista bururik gabe utzi zuten Bidarten. ETAko buruzagi berriak sinetsita zeuden, herritarren gehiengoa autogobernuarekin nahiko asebeteta zegoenez, erakunde armatuari zegokiola herriari erakustea nor ziren etsaiak, nork ahalbidetzen zuen, Estatuko aparatuez harago, Espainiaren hegemoniak jarraitzea Euskadin. Horregatik, garai hartan, kale-indarkeriazko ekintzak ugaritu ziren, eta jazarpen- eta larderia-indarkeria gauzatu zen abertzaleak ez ziren kargu publikoen, kazetarien eta epaileen kontra, atentatuen lehentasunezko xede bihurtu baitziren.

Julio Iglesias Zamora Ikusiko ingeniariaren bahiketa luzearen harira (1993), lazo urdinaren ikurra sortu zen. Aldayaren bahiketarekin eta manifestazio bakezaleen eta kontramanifestazio erradikalen dinamika-ekin, lazo urdina heroitasunaren ikur moduko bat bihurtu zen; eta bakearen aldeko ekintza, arrisku handiko ekintza kolektibo. Kale-indarkeria muturreko modu erradikala izan zen, ENAMek funtsezkotzat eta biziraupenezkotzat jotzen zituen eremuak berreskuratzeko, eremu horiek ez baitzuten lehen bezala kontrolatzen, talde bakezaleen eraginez.

Miguel Ángel Blancoren bahiketaren eta erailketaren ostean Ermuko espiritua lehertu eta gero, Lizarrako akordio politikoak (1998), alderdi, sindikatu eta talde abertzaleek, Ezker Batuak eta Elkarrik sinatuak, agerian utzi zuen publikoki batasun nazionalistaren finkapena, ikuspegi honen

pean: euskal gatazka jatorri eta izaera politikoko gatazka historikoa zen, Espainiako estatua eta Frantziako estatua inplikaturik zeuden, eta aitortzen zen ezinezkoa zela ETA poliziaren jardueraren bidez desagerraraztea. Agiri horretako edukiak honako hauekin lotuta zeuden: autodeterminazioa, lurraldetasuna, elkarrizketa inor baztertu gabe eta baldintzarik jarri gabe, eta euskal gizarteari kontsulta egiteko eskubidea, hark baitu bere estatus juridiko-politikoari buruzko azken hitza. Indar ez-abertzaleek identitate-berrespeneko proiektutzat jo zuten akordioa. Hori horrela, konfrontazio ideologikoa, politikoa eta mediatikoa sortu zen haren inguruan, eta eragin handia izan zuen Euskadiko bizitza sozialean eta politikoan.

Mendearen amaiera aldera, helburu politikoak lortzeko indarkeria beharrezkoa ez zela pentsatzen zuten euskal herritarren ehuneko %90era igo zen. Bestalde, 1996an hamarretik lauk bakarrik zioten politikari buruz edonorekin hitz egiteko askatasuna zutela, eta, lau urte beranduago, hirutik batek bakarrik zioen hori, beraz, tasa nabarmen jaitsi zen. Datuek agerian uzten zuten banaketa nabarmena zegoela abertzaleen eta ez-abertzaleen artean: lehenengoan artean, ia erdiak uste zuten politikari buruz edonorekin hitz egiteko askatasuna zuela; eta bigarrenen artean, berriz, heren batek bakarrik uste zuten hori.

HAUSTURA ZAHARRAK ETA BERRIAK IRITZI PUBLIKOAN

2002ko Alderdien Lege berriaren babesean, ezker abertzalearen bata bestearen segidako ilegalizazioek sakondu egin zuten alderdi ez-abertzaleen eta indar abertzaleen arteko antagonismoa. Lehenek uste zuten ilegalizazioekin ez zela aniztasuna kaltetzen, eta bigarrenek, berriz, uste zuten ilegalizazioekin Euskadiko mapa politikoa itxuraldatzen zela, eta bakea lortzea eragozten zutela. Une hartan, ENAM krisialdi sakona ari zen bizitzen, eta horren erakusgarri izan ziren hauteskundeetan izandako atzerakada eta Aralarren bereizketa, lehen bereizketa milien eta polimilien arteko eztabaidetatik.

Jazarpen poliziala eta judiziala gero eta handiagoa zen, eta horrek behin betiko higatu zuen banda armatua poliziaren jardueraren bidez garaitzea ezinezkoa zela zioen mitoa, mundu osoko egoera guztiz aldatuta zegoen testuinguru batean, irailaren 11-ko atentatuen ostean (2011). Gizarte zibilean ere gero eta ageriagoa zen indarkeriarekin bukatzeko moduei buruzko ikuspegi kontrajarriak zeudela, bereziki ideologikoki hain desberdinak ziren Elkarri eta Basta Ya taldeen artean.

Martxoaren 11-ko sarraski islamistaren ostean —Alderdi Popularraren gobernuak ETari egotzi zion atentatua—, Zapaterok zikloaldaketa bat hasi zuen, Diputatuen Kongresuan onartutako ebazpen batean oinarrituta. Ebazpen horretan, alderdi guztiek, PPK izan ezik, baimena eman zioten Gobernuari ETarekin elkarrizketak egiteko, betiere, argi gelditzen bazen gai politikoak herriaren borondatearen ordezkari legitimoen bitartez bakarrik konpondu behar zirela, eta indarkeriak ez zuela prezio politikorik. ETak su-eten iraunkorra iragarri zuen 2006an. Lizarrak fronte abertzalea sendotu zuen, eta su-etenak ia hondoratu egin zuen PPren eta PSOEn arteko terrorismoaren kontrako akordio ahula. 2006ko abenduaren 30ean, bonba-furgoneta bat lehertu zen Barajasko aireportuan, eta bi ekuadortar hil zituen. Horrek ekarri zuen su-etenaren amaiera erreala, nahiz eta ETak ez zuen iragarri berriz armak hartu zituela 2007ko ekainera arte. Une horretan, Gobernuak erabaki zuen erakunde terroristaren eta haren ingurune politikoaren kontrako polizia-borroka sendotuko zuela. Orduan, ENAM, bere biziraupena bermatzeko, beso armatuaren gaintik jarri zen; ETak behin betiko su-etena iragarri zuen 2011n, eta desegin egin zen 2018an.

BIKTIMEN ETA HAIEN ANIZTASUNAREN IKUSGARRITASUN SOZIALA

Prozesu historiko honetan, biktimak funtsezko eragileak izan dira, bai ETaren indarkeriaren biktimak, baita estatu-terrorismoarenak ere. Zaila izan da subjektu politiko gisa aitortuak izatea, eta oso modu desberdinetan gertatu da hori gainera. Hasteko, denbora asko behar izan zen ETaren biktimak aitortzeko. Izan ere, erakundeak zibilak hil zituenean, eta, batez ere, ordezkari politikoak, epailetzako kideak, kazetariak eta abar hil zituenean, hasi ziren arduradun politikoak biktimen aitortza defendatzen. Horretan eragina izan zuen zenbait elkarte sortu izanak —Terrorismoaren Biktimen Elkarte (AVT, gaztelaniazko siglen arabera) 1981ean sortu bazen ere, haren ikusgarritasun soziala ez zen iritsi 90eko hamarkadaren erdialdera arte—, hala nola Euskal Herriko Terrorismoaren Biktimen Elkarte (COVITE, gaztelaniazko siglen arabera; 1998) eta Gregorio Ordóñez, Miguel Ángel Blanco eta Fernando Buesa fundazioak. Beste alde batetik, are denbora gehiago behar izan da estatu-terrorismoaren biktimak aitortzeko, eta, batez ere, indarkeria polizialaren eta parapolizialaren biktimak; arlo hori oraindik lantzeko dago.

Biktimak bat datoz honako diagnostiko honetan: ezinbestekoa da biktinek protagonismoa izatea Euskadiko adiskidetze-prozesuan, eta oso garrantzitsua da haien eskubideak aitortzea —konpondu daitekeena konpontzea, eta konpondu ezin denarekin memoria sortzea—. Alabaina, ez daude ados oinarriko zenbait gaitan. Sektore batzuentzat, egile ezagunik gabeko atentatuak argitzeko eta errudunak auzipetzeko eta zigortzeko egin behar dira ahaleginak, eta zigorrak osoki betearazi behar dira, graziazko neurririk gabe; izan ere, biktima horien iritziz, neurri horiek ETaren historia zurrizko balioko lukete. Beste sektore batzuek, berriz, justizia errestauratiboko esperientzietan parte hartu dutenek bereziki, aldarrikatzen dute adiskidetzeko eta bizikidetzaren berreraikitzearen prozesuak egin behar direla, biktimaren eta biktimagilearen asimetria morala garbi utzita betiere, eta, prozesu horietan, biktimagilearen gizarteratzeak garrantzi nabarmena duela. Batzuk eta besteak ados daude honetan: ezker abertzaleak kritikoki ebaluatu behar du bere iragana, eta dagozkion erantzukizunak hartu behar ditu, indarkeria legitimatzeagatik.

Banakako eta antolatutako biktimen aniztasun horren baitan, garrantzitsua da haien ikuspuntuaren aniztasuna azpimarratzea, eta, bereziki, barkatzeko aukeraren eta bizikidetzaren berreraikitzearen aukeraren inguruan dauden desberdintasunak. Barkamenari dagokionez, batzuek diote ezinezkoa dela, ezin baitute barkatu erailak izan zirenen ize-nean, eta, gainera, uste dute ekintza horrek ETaren historia zuritu lezakeela. Beste batzuen iritziz, berriz, barkatzea ekintza askatzailea da barkamena ematen duenarentzat (ez du esan nahi gertatutakoa ahaztu behar denik edo justizia bilatzeari uko egiten zaionik), zauriak ixten eta bakea eta adiskidetze soziala lortzen laguntzen duelako. Bizikidetzaren eraikitzeari dagokionez, batzuek uste dute justizia penala dela bide bakarra. Hala ere, beste biktima batzuek uste dute, justizia errestauratiboaren esparruan, bidegabeki eragindako kalteak damutu diren biktimagileen integrazioa etiko eta soziala bideratu behar dela. Azken helburu horrekin, 2000ko bigarren hamarkadaren hasieran, biktima batzuek topaketa errestauratiboetan parte hartu zuten indarkeria baztertu zuten ETako kide ohiekin (Langraiz bidea). Bukatzeko, azpimarratu behar da, halaber, biktima gehienek uste dutela indarkeria legitimatzen duen oinarria desaktibatu behar dela bizikidetzaren berreraikitzearen baina beste batzuek uste dute horretarako jarrera abertzaleak zalantzan jarri behar direla, eta beste batzuek, berriz, uste dute posible dela abertzalea izatea eta indarkeria deslegitimatzeko.

Preso gehienak ez dira aldendu egun desagertuta dagoen erakunde terroristatik, eta, beraz, ez dute justizia errestauratiboko prozesuetan parte hartu. Parte hartu zutenek ulertu zuten bidegabeki eragindako kaltea onartzeko banakako ardurak hartu behar direla, eta, beraz, ezin direla erantzukizun kolektibo faltsu baten babespean ezkutatu, eta in-darkeriaren erabilera justifikatzeko gauzatutako biktimen kosifikazio-prozesua lehengoratzeari behar-beharrezkoa dela.

II. zatia. ***Homogeneotasuna edo aniztasuna — Ahots eta ikuspuntu desberdinen analisia egiteko tailerra***

Azalpenean ikasitakoa buruan zutela, ikasleek tailer bat egin zuten saioaren bigarren zatian; eragilean, ahotsen eta ikuspuntuen aniztasuna aztertu eta eztabaidatu zuten, aspaldi zaharreko gatazkaren kontakizunak defendatzen duen euskal herriaren homogeneotasunaren hipotesia zalantzan jartzen duten zenbait ikuspuntu jasotzen zituzten sei testutan oinarrituta. Testu bakoitzak eragileari buruzko azalpen labur edo testuinguru bat zuten, bai eta haren idazkien aukeraketa labur bat ere:

- ***Gesto por la Paz como memoria de futuro***. Ana Rosa Gómez Moral (2013), *Un gesto que hizo sonar el silencio* laneko zatiak. Bilbo: Euskal Herriko Bakearen Aldeko Koordinakundea, 11.-20. or.
- ***La víctima perfecta para Ana Rosa Gómez Moral***. Ana Rosa Gómez Moral (2013), *Un gesto que hizo sonar el silencio* laneko zatiak. Bilbo: Euskal Herriko Bakearen Aldeko Koordinakundea, 27.-65. or.
- ***La Vía Nanclares y yo***. Joseba Urrusolo Sistiaga (2019).^o, *La vía Nanclares. Una guía de futuro*, hemen: Antonio Rivera eta Eduardo Mateo (Ed.), *Víctimas y política penitenciaria. Claves, experiencias y retos de futuro*. Madril: Catarata, 181.-189. or.
- ***Yoyes y mi amigo Imanol: de héroes a traidores***. Felipe Juaristik Fernando Buesa Fundazioan emandako testigantza <http://www.zoomrights.com/?p=1445>.
- ***Nacionalistas vascos amenazados: Joxean Rekondo¹³, víctima del acoso***, Fernando Buesa Fundazioan <http://www.zoomrights.com/?p=1445>.

¹³ Hernaniko alkate ohia, Eusko Alkartasuna alderdiaren aldetik; gaur egun EH Bildu koalizioan sartuta dago alderdi hori.

— **Perspectiva diacrónica sobre ETA.** *De la dictadura a la consolidación democrática.* Txostengileek egina, hemen oinarrituta: Gaizka Fernández Soldevilla (2013), *Héroes, heterodoxos y traidores. Historia de Euskadiko Ezkerra.* Madril: Tecnos.

Parte-hartzaileak bikoteka jarri ziren, eta bikote bakoitzak bi testu irakurri zituen, eta honako galdera hauetatik abiatuta aztertu zituzten:

1. Zer pertsonak edo taldek defendatzen du testuan azaldutako ikuspuntua? Zer erlazio du ETArekin? Zer erlazio du abertzaletasunarekin?
2. Zer ikuspuntu du (edo ditu, bat baino gehiago badaude) euskal abertzaletasunari buruz eta xede politikoz indarkeria erabiltzeari buruz?
3. Nondik sortutako ikuspuntua da? Zer desadostasun mota da? (adibidez: identitate anitzak, proiektu politiko desberdinak, hausturak, denboran zehar izandako eraldaketak, etab.).

Denbora batez binaka lan egin ostean, bikote bakoitzak testuen laburpen bat aurkeztu zuen, egindako galderei jarraikiz, eta atentzio gehien eman ziena azpimarratu zuten. Jarraian, parte-hartzaileen go-goeta batzuk jasoko ditugu:

«*La víctima perfecta* testuan, Bakearen Aldeko Koordinakundeko neska bat ikusten dugu. Ez du azaltzen ikuspuntu abertzalea duen ala ez, baina hasieran adierazten du berak, jaio zen lekuagatik, bazuela nolabaiteko atxikimendua kausarekiko, eta pentsatu izan zuela batzuk zerbaitegatik beste norbait hiltzeko prest bazeuden, zerbaite horrek mereziko zuela. Hasieran ez du justifikatzen, baina ETArengandik hurbilago sentitzen da, eta adierazten du bera eta herria talde armatua osatzen zutenengandik gertuago zeudela, auzokoak zirelako, herrietako jendea, berak ezagutzen zuen jendea. ETAREN terrorismoaren biktimak, berriz, beste eskualde batzuetako jendea zen, kanpoko jendea, herrian ez zituzten ezagutzen; hau da, neurri batean, gizatasuna kentze hori pairatzen zuten. Baina, gero, muturreko aldaketa bat izaten du Yoyes irakurri ostean, egin zuten horrek guztiak zentzu handirik ez zuela esan baitzuen; eta, ordutik aurrera, lan aktiboagoa egiten hasi zen Bakearen Aldeko Koordinakundean [...]. Yoyesek zituen zalantzei buruz irakurritakoan, bonbilla piztu zitzaion, eta ikusi zuen erailketa oro bidegabea dela, eta ezin dela justifikatuta egon [...]. ETA bereizketarik egin gabe zibilak eta politikoak hiltzen hasi zela ikusteak ere aldarazi zion iritzia [...].»

Orduan, jendaurrean jarri zen, eta garai hartan oso zaila zen, ezker abertzaleko bizilagunek epaitu egiten zutela sentitu zezakeelako, etab.» (3. l. eta 2. l).

«Joxean Rekondo Hernaniko alkatea izan zen, EAkoa, eta hark pairatutako jazarpena ikusten da. Bere agintaldian zehar, herrian jazarpena pairatu zuen etengabe ezker abertzaleko kolektiboen alde-
tik: eraso pertsonalak egiten zizkioten, harriak botatzen zizkioten, jarraitu egiten zioten, molotov koktelak botatzen zizkioten autora... Eta hori guztia bera abertzalea izanda [...] hasiera-hasieratik, indarkeria baztertu zuen, eta ekimen bat sortu zuen herrian; urtero, bizilagun gutxi batzuk kalera ateratzen ziren, indarkeriaren aurkako jarrera erakustera []. Laburbilduz, testu honetan ikusten da abertzaletasunaren baitan ere badagoela ETaren aurka egon izan den jendea, eta horren ondorioak pairatu izan dituen.»(3. l. eta 2. l.).

«Joseba Urrusolo zenbait atentatu eta eraiketagatik 450 urteko zigorra jaso zuen preso politikoa da. Bada, bere testuan, [] damua da bere ikuspuntua; Langraiz Bideko presoetako bat izan zen. Beste testua Felipe Juaristirena da, eta Yoyesi eta Imanoli buruzkoa da. Eta publikoki indarkeriaren kontrako iritzia adierazten duten pertsonaia publikoei buruz hitz egiten du; hasieran heroi gisa ikusiak izatetik, traidoretzat joak izatera igarotzen dira. Testuetan Joseba eta Imanoli buruz idazten da. Biak ETA erakundeko kideak izan ziren, garai desberdinetan eta maila desberdinez; bata ibilbide luzeko buruzagia izan zen; abeslaria, berriz, denbora laburrez egon zen, eta gero erakundetik aldendu zen [...]. Josebak damu-prozesu bat izan zuen. Imanol indarkeriaren kontra agertu zen antolatzen zituen kontzertuen bidez, eta jazarpenaren kontu hori pairatu zuen berak ere, garai hartan oso zaila baitzen zure iritzia agertzea []. Asko kritikatzan zuen Euskal Herriko egoera [], egoera jasanezina zela, eta joan egin behar izan zuen horregatik []» (4. l. eta 12. l.).

«Bueno, ba pena dela, Imanolen kasuan, garbi ikusten baita ez dagoela elkarrizketarako gunerik, ez eta autokritikarako ere, Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduaren baitan» (7. l.).

Elkarrizketaren ostean, Lourdes Oñaderrak Fernando Buesaren eta Jorge Diezen eraiketaren hogeigarren urteurreneko omenaldi-ekitaldian emandako diskurtsoaren zenbait zati entzun zituzten. Hitzaldian, isiltasuna ezartzeko zenbait mekanismo sozial deskribatzen ditu, indarkeriaren normalizazioaren eta legitimazioaren kontrako ahotsak eta ikuspuntuak baztertzea edo ikusezin egitea ahalbidetzen dutenak. Diskurtso horren osagarri edo kontraste gisa, talde dinamizatzaileko kide batek bere bizitzako historia kontatu zuen, bere belaunaldiko nahiko sektore esanguratsu baten bizitzaren prototipo izan litekeena. Azpimarratu zuen

eraldaketa bat izan zuela: nerabezaroan diktadurari aurre egiten zion ETA hura ulertzen zuen; gero, Euskadiko Ezkerraren jarrerekin identifikatu zen, eta, ondoren, indarkeriaren kontra militantzia zibikoa egin zuen, Bakearen Aldeko Koordinakundearen bidez eta prentsa idatziko zenbait komunikabidetan artikuluak argitaratuz.

Saioari amaiera emateko, Imanolen abesti batzuk entzun zituzten («Nunca que no, nunca», «Mendian gora haritza», «Ilun ikarak», «Ausencia», «Zergatik», «Nere euskaltasuna», «Poeta kaxkarra»).

Ikaskuntza-komunitatearen esperientziari buruzko balioespena

Behin ikaskuntza-komunitatearen faseak eta haietan egindako jarduerak azalduta, koadernoko atal honetan, esperientziaren lorpen eta muga nagusien balantze bat egingo dugu, bai gazteen ikuspuntutik, bai talde dinamizatzailearen ikuspuntutik ere.

Gazteen balorazioak

Esperientziari buruz

- Gai polemikoei buruz askatasunez hitz egiteko aukera eman zien espazio seguru bat aurkitu izana azpimarratu zuten bereziki, gizartean gai horiei buruzko isiltasuna eta tabua nagusi baitira oraindik ere.

«Egian esan, nire iritzia azaldu ahal izan dut, inolako beldurrik gabe [] leku seguru batean [] inork arraro begiratzen didala edo eraso egiten didatela sentitu gabe» (5. l.).

«Euskal gatazkaren gaia ezin da ez familiarekin ez lagunekin landu, eta, hemen, pentsatzen dudana adierazi ahal izan dut, eta asko ikasi dut» (3. l.).

Parte-hartzaile gehienek sentipen hori bera zuten. Alabaina, haietako batek zehaztu zuen batzuetan ez zela behar bezain lasai sentitu bere jarrerak defendatzeko, gaitzetsiak izango zirela sentitzen zuelako:

«[] bai, espazio segurua da, baina, bueno, nik [...] nire ideiak ditut [...] eta ez naiz denbora guztian zenbait gauza esateko gustura sentitu, indarkeria-postulatuak zirelako. Beraz, giro honetan ez zitzaidan egokia iruditzen» (1. l.).

- Positiboki azpimarratu zuten taldearen aniztasuna, bai eta parte-hartzaileek, enpatia-ahalmena landuz, norberarenak ez bezalako ikuspuntuak ezagutzeko izandako inplikazioa ere.

«Gainera, eskerrak eman nahi dizkizuet guztiei, ikasleei zein irakasleei, guztioi entzuteagatik, eta, azken batean, jende desberdina dagoela, adin desberdinetakoak, leku desberdinetakoak, niretzat hori oso aberatsa da, eta asko gustatu zait zuei denoi entzutea []» (4. I.).

«Elkarrizketa-prozesua nabarmenduko nuke, eta beti berdin pentsatzen ez genuen pertsonak egon izana komunitate honetan, jende anitza. Nire kideek nire galderen antzekoak zituzten, baina batzuek beste prisma batetik, beren bizitzetan izandako baldintzak zirela eta..., ingurune abertzaleago batean bizi izan diren pertsonak, eta horrelakoetan bizi izan ez direnak... Hobeto ulertzen lagundu dit. Elkarrizketa-zubi bat eraiki genuen, eta sendotuz joan da; horri esker, orain lagunak gara, nahiz eta iritzi desberdinak izan» (7. I.).

«Jende askoren esperientzia pila bat eramango ditut nirekin, eta, batez ere, elkar ulertzeko gaitasun berri bat [] nire kasuan behintzat, hobeto ulertzeko balio izan dit, eta era guztietako jendearekin eta ikuspuntuekin enpatia gehiago izateko» (5. I.).

«Taldea honen alderdi onena zen ingurune, adin eta familia-sustrai desberdinetako jendea zegoela. Batzuek beste batzuek baino askoz ere gertuagotik bizi izan dute euskal gatazka. Jende horrekin guztia-ekin hitz egin ahal izateak, ingurune seguru batean, familia bakoi-tza nola markatu zuen ulertzeak, ikuspegi zabalago bat izateko balio izan dit, eta, aldi berean, sufritu duten biktima guztiek mina partekatu dutela ulertzeko» (2. I.).

- Taldean belaunaldi bereko eta belaunaldi desberdinetako pertsonen artean elkarrizketan aritzeko izandako prestutasuna azpimarratu zuten, eta harritura agertu ziren gai horri buruz hitz egiteko eta ikasteko interesa zuten beste gazte batzuk topatu zutelako, eta indarkeria ez errepikatzeko printzipioa bermatzeko egin zutelako.

«Gaiari buruz hitz egiteko, eztabaidatzeko, bere ikuspuntuak azaltzeko, konbentzitzeko edo konbentzituia izateko, besterik gabe iritziak alderatzeko, gertakariak kontrastatzeko eta autokritika egiteko gogoia zuten pertsona asko topatu ditut nik; denetik pixka bat []» (7. I.).

«Ikaskuntza-komunitatean topatu dudanak onerako harritu nau. Badago ni bezalako jende gaztea gertatu den horretan interesa duena, eta, etorkizunean pentsatuz, irtenbideak topatu nahi dituen.

Eta jende nagusiagoarekin ere partekatu dut, hori bizi izan duen jendearekin; azken batean, bizi izan duten horien seme-alabak edo bilobak gara gu []» (4. 1.).

«Eta etorkizunean hau errepikatu ez dadin zerbait aldatzea [] nahi duen jendea ezagutu izana; izan ere, batzuetan, badirudi jendeak iraganeko akatsak errepikatzea nahi duela» (2. 1.).

- Esan zuten pena zela bi parte-hartzailek —ezker abertzaletik gertuago dauden jarrera ideologikoak defendatzen zituztenak— taldea utzi izana, beren memoria-atalak partekatu zituzten bigarren saioaren ostean:

«Niri pena handia eman zidan, garatzea oso interesgarria izango zen ikuspuntu bat galdu zelako» (3. 1.).

«Pertsona batzuek etortzeari utzi zioten; beren historiak kontatu zituzten, eta, gero, etortzeari utzi zioten. Pena ematen dit, ekarpen guztiek balioa dutelako [...]; aukera bat galdu zela iruditu zitzaidan, ez komunitatearentzat bakarrik, baita haientzat ere [...]. Nire ustez on egin izango lieke hitz egiteko eta beren ikuspuntua azaltzeko aukera izateak, eta beste batzuek hori entzuteak, agian inork inoiz entzun ez duen moduan» (7. 1.).

«[] zalantzarik gabe, herritarrengan irekita dagoen zauri bat da, eta hura sendatzen ahalegindu beharrean, jaramonik ez egiten aha-legintzen gara, aurrera egiten. Pertsona batzuk, gaia hain modu zuzenean lantzen denean, deseroso sentitzen dira, minduta sentitzen dira [...] eta agian horregatik erabakiko zuten ez itzultzea. Egoera batzuetan, ez zaude prest pausoa emateko, eta hori ere ulergarria da» (5. 1.).

- Metodologia desberdinak erabiltzearen egokitasuna ebaluatu zuten, eta edukiak helarazte hutsean oinarritzen den hezkuntza-eredu klasikoarekin hautsi izana azpimarratu zuten, gogoeta eta parte-hartzea sustatzen duten prozesuen mesedetan. Lehenengo saioetan, jarduera partizipatiboagoak egin zirenez, gaiak beren bizitzetan izandako garrantziaz jabetu ahal izan ziren, eta hurrengo saioetan, berriz, azalpen akademikoak jaso eta beren memoria pertsonalekin eta kolektiboekin kontrastatu ahal izan zituzten.
- Oro har, esperientziarekin pozik geratu zirela adierazi zuten, eta batzuek denbora gehiago irautea nahiko luketela adierazi zuten.

«Ikaskuntza-komunitatearen esperientzia bukatu zenean, guztiok ados geunden gehiago irautea nahiko genukeela, denboran gehiago luzatu izana, informazio zehatzagoa izateko, sakonagoa, biktima gehiagorekin hitz egin ahal izateko, beste herrialde batzuetan gertatutakoarekin loturak ezarri ahal izateko. Inoiz ez genuen horri buruz hitz egiteko aukerarik izan» (2. l.).

Beren ikaskuntzei buruz

- Beren jarrerekiko eta kontakizunekiko nolabaiteko distantzia go-goetatsua hartu zuten. Aitortu zuten beste gazte batzuekin harremanetan egotea lagungarria izan zela ulertzeko norberaren ikuspuntuak ikuspegi posibleetako bat bakarrik adierazten duela, eta beste batzuekin alderatu behar dela modu kritikoa.

«Beste ideologia batzuen eta historia ikusteko eta bizi izateko beste modu batzuen aurrean jarri nahi nuen, eta hori guztiz bete zen []. Zure ingurune hurbilean, iritziak homogeenagoak izan ohi dira, eta normalean ez duzu zeure burua kontrako iritzien aurrean ikusten. Alabaina, azken saio hauetan, historia ikustean, iritziak elkarren aurkakoak ziren, eta horrek hainbat gauza zalantzan jartzea ekarri zuen, zure ingurune hurbilenarekin bakarrik harremanetan zaudenean zalantzan jartzen dituzunak baino gehiago» (7. l.).

«Esperientzia esaldi batean laburbildu beharko banu, ikasitako desikastea erabiliko nuke [...]. Nire ingurunean, ideiak askoz ere erradikalagoak ziren. Hemen, behar-beharrezkoak diren gaiak buruz modu irekian eztabaidatzeko aukera eman didan eremu bat aurkitu dut; baliteke hemendik kanpo deserosoa izatea horiei buruz hitz egitea. Ikuspuntu berriak ezagutu ahal izan ditut, eta, azken batean, gatazka berari buruzko bertsio desberdinak ikusi. Orain arte jakindakoa zalantzan jarri dut, txikia nintzenetik barneratutakoa; nire ideal guztiak jarri behar izan ditut zalantzan» (4. l.).

- Euskal historiari buruzko ikuspegi monolitiko bat pitzatu zitzaizela aitortu zuten, errealitatea asko sinplifikatzen duen ikuspegi hori, «bestea» (ez-euskalduna) arerio absolutu gisa erakusten duena; eta eduki eta azalpen berriak ikasi zituztela azpimarratu zuten, mitoak identifikatzea eta horiek ebidentzietan oinarritutako azalpen historikoekin kontrastatzea xede zuten jardueren bidez.

«Niri egin didan ekarpen handiena da gatazka beste ikuspegi batetik ikusi ahal izan dudala. Diskurtso hegemoniko bat dago, guztiok

buruan duguna, eta esperientzia honek lagundu dit diskurtso hori desmitifikatzen, ikusten zer den egia, eta zer ez, eta nire iritzi propioa osatzen» (3. I.).

«Azkeneko saioek guztioi balio izan ziguten begiak irekitzeko; izan ere, etxean, eskoletan, lagunekin, bertsio bakarra kontatzen da, eta ikaskuntza-komunitatean ikusi dugu bertsio hori distortsionatuta dagoela. Jakin dugu kontatzen ziren mito batzuk ez zirela guztiz egiazkoak » (2. I.).

«Azken saioak errealtate-kolpe bat iruditu zaizkit [...]. Nik nuen irudia zen Euskadik pairatu zuela gehien Gerra Zibileko indarkeria, eta ez zen horrela izan []» (5. I.).

- Azpimarratu zuten oso garrantzitsua izan zela jakitea euskal gizartean bazeudela indarkeriarik ezaren erreferenteak, ordura arte ez baitzekiten ezer haiei buruz.
- Nabarmendu zuten zirrara eragin ziela indarkeriaren biktimen baten testigantza zuzenean entzuteak, gehienek ez baitzuten horrelako aukerarik izan aurrez.

«Testigantzak asko eman zidan; ordura arte, ez nuen inoiz aukerarik izan biktima batek nola bizi izan duen entzuteko. Zirrara eragiten du, enpatia sorrarazten du, eta ulertarazten dizu, nahiz eta zure ustez kausa jakin batzuk egon, indarkeriaren erabilera justifikatzea oso zaila dela» (3. I.).

- Agerian utzi zuten badaudela iraganeko arrastoak, oraindik ere bizirik dirautenak, hala nola herriko jaietan abesten diren abestiak, graffitiak eta biktimen bizipenak; azken horiek, gaur egun ere, indarkeriaren ondorioak pairatzen jarraitzen dute.

«Iragana hobeki ulertzeko balio izan dit; izan ere, iragan hori bizi izan ez dudan arren, haren ondorioak nabaritzen dira gaur egun ere, eta ulertu dut oraindik oso urrun gaudela sendatetik edo iraganarekin bakeak egitetik [] » (2. I.).

- Esperientzia labur honetan landutako ibilbide historikoaren amaieran, etorkizunean sakondu nahiko lituzketen zenbait gai aipatu zituzten:

- ETAREN eta ezkerreko fakzio politikoen arteko harremanak;
- Ezkerreko zenbait korrante ideologikok ETAN izandako eragina;
- ETAREN eta abertzaletasun moderatuaren arteko harremanak.

Hiru gai horiek islatuta ikusten dira, partzialki behintzat, ikasle baten honako esaldi honetan:

«Niri oso deigarria iruditu zait talde berean elkarrekin bizi ahal izatea tradizionalista katoliko burgesak eta benetan komunismoaren edo birbanaketaren alde dagoen ezkerreko talde bat» (2. l.).

- Egiturazko indarkeriaren ageriko kasuetan, indarkeriaren aukera deslegitimatzekeo posibilitateak.

«Nire ustez, honen ondoren, errazagoa egiten zaizu ETaren gaien indarkeriaren erabilera zalantzan jartzea [] baina beste zenbait gatazka motatan, adibidez, ez dut hain garbi ikusten. Adibidez, indigenen borrokaren alorrean eta abar. Bizi-baldintza materialak oso desberdinak dira, eta, gainera, indarkeriazko erasoak egiten dira indigenen komunitateko kide batzuen kontra, eta haiek ezin dute beren burua defendatu» (3. l.).

- Ohartu ziren gai honi buruzko iritziak zenbait espaziotan adierazteko konfiantza eta arrazoitzeko gaitasun gehiago zutela; izan ere, lehen espazio horietan ez zuten hori egingo.

Talde dinamizatzailearen balorazioak

- Oso egokia izan zen lehenengo saioan joko-arauak ezartzea, parte-hartzaileak eroso sentitu zirelako haiekin, eta eztabaidarako eta gogoeta kritiko eta errespetuzkoa egiteko giroa bermatu zutelako.
- Positiboki baloratzen da esperientzien, memorien eta jarrera ideologikoen aldetik nolabaiteko aniztasuna zuten ikasleen talde bat lortu izana. Nahiz eta ezin izan zen taldean eutsi ezker abertzalearen planteamenduetatik hurbilen zeuden bi ikasleei, gainerako kideek ikuspegi desberdinak eta eztabaida-puntuak adierazi zituzten prozesuan zehar, eta haien arteko eztabaida piztu zuen horrek. Gainera, taldea utzi zuten bi pertsonak bigarren saioan parte hartu ostean joan ziren; hain zuzen ere, saio horrek intentsitate emozional eta afektibo handia izan zuen, eta zirrara handia eragin zuen guztiengan. Tamalez, bi ikasleak lehenengo saioan parte hartu gabe joan ziren, eta saio horretan egin ziren taldea osatzeko eta taldeari sendotasuna emateko jarduerak. Ondorengo saioetan ere ez ziren egon, eta haietan joan zen sortzen ikasleen arteko konfiantza.
- Garrantzitsua izan zen taldearen kohesioa sustatzea hiru orduko aurrez aurreko saioen bidez; behar beste espazio sortu ziren aurreikusitako jarduerak eta lantegiak egiteko eta, atsedenetan, kafe baten bueltan, modu informalagoan eta bat-batekoagoan

eztabaidarekin jarraitzeaz gainera, pertsona gisa elkar ezagutzeko eta laguntasun-harremanak sortzeko aukera izan zuten, aurreiritzien, estereotipoen eta oztopo ideologikoen gainetik. Covid-19ren pandemia zela-eta, erregistroa aldatu behar izan zen, eta azkeneko bi saioak birtualki egin behar izan ziren; horrela, galdu egin zen eremu informalek zekarten aberastasuna.

- Ikaskuntza-komunitatearen metodologiari esker, lehenetsuna eman zitzaion hezkuntzaren alderdi dialogikoari, parte-hartzaileen arteko lan kolaboratiboaren bidez, eta edukien azalpenak gogoe-tarako eta kontrastatzeko jardurekin txandakatuz. Metodologia horri esker, ikasleen interesari eutsi zitzaion, eta pitzadurak sortu ziren haien mundu-ikuskeretan eta diskurtsoetan.
- Oso egokia izan zen komunitatearen lehenengo fase hori gazteei zuzenduta egitea, haien hutsuneak eta isiltasunak ezagutzeko aukera eman zigulako, baina baita haien interesak eta landutako arazoari buruz zituzten galderak ere.
- Positiboki baloratzen da ikasleen iraganari buruzko ikuspegieta eraldaketa-prozesuak eragitea, nahiz eta hasiera txiki bat baino ez izan. Adibidez, ikasle batzuek ikaskuntza gisa aipatu zuten bakoitzak historia bere modura bizi duela jakitea, eta, beraz, ez dagoela benetako historiarik edo historia faltsurik:

«Nire esperientzia esaldi bakar batean laburbildu beharko banu, esango nuke historiak ez daukala bertsio bakar bat, bakoitzak modu jakin batean bizi duela historia, eta uste dut honekin ikasi dudana gauza handia dela nire ustez historia alderdi askotatik irakatsi behar dela, dena ez delako egia, ezta gezurra ere []» (5. l.).

Nahiz eta hitz horiek nolabaiteko ulermen erlatibista adierazten duten, etikoki arazotsua izan daitekeena, parte-hartzaileen prozesua kontuan hartuz gero, positiboki baloratu behar da emandako urratsa: bertsio legitimo bakarra zegoela uste zuten hasierako jarreretatik, zenbait interpretazio historiko onargarri daudela ikustera igaro dira.

- Positiboki baloratzen da ikasleak bultzatzea ia konturatu gabe barneratu eta naturalizatu zituzten diskurtsoetan dauden kontraesanak eta gabezia batzuek kontzientzia hartzera. Ikaskuntza-komunitate honen esperientzia oso laburra izan da denboran.

Guztira, zazpi saio egin ziren, eta, horietatik, hirutan bakarrik landu zen historia esplizituki. Oso zaila da hain laburra den esperientzia batek imajinarioetan aldaketa sakonak eragitea. Alabaina, agerian gelditu zen ikasleak gai izan zirela beren kontakizunetako muga batzuez ohartzeko, eta galderak eta gogoetak egiteko; agian, garapen luzeago batean, emaitza hobeak aterako lirateke proposatutako helburuen ikuspegitik.

Ondorioak

- Ikaskuntza-komunitatearen esperientziak hainbat ikerlan eta inkesta soziologikok agerian utzitakoa berretsi du: gazteek oso gutxi dakite Euskal Herriaren historiari eta euskal gatazkari buruz.
- Ezagutza falta horrek erakusten du, parte-hartzaileek azpimarratu zuten bezala, hezkuntza formalaren esparruan, hots, eskolatan, oso gutxi landu dela auzi hori. Dena den, gazte gehienek esperientziaren arabera, beren familietan eta kuadrillean ere isiltasuna izan da nagusi Euskadin bizi izandako indarkeriaren inguruan. Aitortzen dute oraindik ere gai horri buruz hitz egiteko beldurra edo errezeloa dagoela. Hain zuzen ere, beren inguru-neetan ezarrita dagoen isiltasun horren pisua, eztabaida edo gogoeta kritikoa eragozten duena, motibazio nagusietako bat izan zen ikaskuntza-komunitatean parte hartzeko.
- Komunitatearen esperientziak agerian utzi zuen, halaber, gazteek ezagutza gutxi dituztela, baina badituztela banakako memoriako eta memoria kolektiboko atalak, ideiak, kontakizunak, sinbologia, etab. Elementu horietako gehienak familietatik, kuadrilletatik, ingurune sozialetik eta kulturaletik edo komunikabideetatik eta sare sozialetatik datoz, eta askotan modu inplizituan edo partzialean komunikatu dira, eta ia batere zalantzan jarri gabe barneratu. Memoria-atal horiek antzekotasun nabarmenak dituzte aspaldi zaharreko gatazkaren kontakizuna deitu diogun

- horrekin (osagai hauek ditu: natibismoa, bi bandoren arteko gerra, herri zapaldu eta erresistente baten imajinarioa, etab.), eta, beraz, indarkeria legitimatzeko eta euskal gizartearen aniztasuna ez aitortzeko bidea ematen dute. Gainera, hamarkadetan zehar egindako hizkuntzaren perbertsioak gazte horietako askoren adierazpenetan eragin du, eta indarkeriaren erabilera normalizatu du. Horregatik, oso garrantzitsua da zenbait adierazpenen erabilera eta esanahia zalantzan jartzea, hala nola «preso politiko», «borroka armatua» eta «iraultza-zerga» adierazpenenak.
- Gure inspirazio den planteamendu pedagogikotik, funtsezkoa da historiaren irakaskuntzak memoria-atal horiek kontuan hartzea eta kritikoki lantzea, zalantzan jarri eta eraldatu ahal izateko.
 - Historian potentzial handia aurkitu badugu ere, garrantzitsua da onartzea memoriak, eta are gehiago garai gatazkatsuei buruzkoak, osagai identitario eta emozional sendoak dituela, eta, beraz, oso zaila dela horiek datu eta argudio arrazional hutsez aldaraztea.
 - Beste zailtasunetako bat diskurtso hiperideologizatuekin lotuta dago; izan ere, historiaren manipulazio politikorako joera dute, eta interpretazio kritikoek ez diete eragiten, ez argudio logikoek ez diskurtsoen euskarri diren ebidentzia historikoak zalantzan jartzeak ere. Baliteke horrek eragina izatea bi ikaslek taldea uztearekin; beraz, arreta berezia jarri behar da hor, biztanleriako sektore horiek honen moduko gogoeta-prozesuetan parte hartzea erraztuko duten mekanismoak identifikatzeko.
 - Bestalde, honako hau ekidin beharreko arriskua da, nahiz eta ikaskuntza-komunitatearen garapenean ez den esplizituki azaldu: arriskutsua da iraganaren hiperideologizatorako «irtenbide» gisa hura guztiz edo partzialki ezabatzen ahalegintzea, argudio ideologikoak eta politikoak etorkizunaren eraikuntzara bideratuz. Atzera begiratu gabe aurrera egiteko modu berezi bat da hori, zalantzan jartzen dituen historiaren balioa eta historiari etorkizuna imajinatzeko moduei buruzko informazio kritikoa emateko duen potentziala.
 - Historia irakasteko proposamen alternatibo batek kontuan hartu behar ditu aipatutako zailtasunak, eta horiei aurre egiteko estrategiak eta baliabideak landu behar ditu. Gazteekin egindako

ikaskuntza-komunitatearen esperientziak agerian utzi zuen bi estrategiarekin asmatu zela. Lehen a izan zen, prozesua hasteko, ikasleen memoria pertsonalak eta kolektiboak mahaigaineratzeko eta aztertzeko lehenengo bi saio osoak erabiltzea. Horri esker, parte-hartzaileek gogoetarako jarrera hartu zuten, eduki historikoak esanguratsuak egin zitzaizkien eta elkarren arteko loturak ezarri zituzten, eztabaida historikoaren fasean sartu baino lehen. Bigarrena, berriz, biktimen ikuspuntura bideratutako saio giltzarri bat egitea izan zen. Azken estrategia horren alderdi garrantzitsuena izan zen indarkeriaren ondorioen bidegabekeriari buruzko sentsibilizazioa eragin zuela ikasleengan, eta sentsibilizazio hori lagungarria izan zela indarkeria legitimatzen duten diskurtso politiko eta ideologiko batzuk higatzen laguntzeko. Hori horrela, biktimak erdigunean jartzeari buruzko gogoeta etikoa eta indarkeriaren justifikazio historikoen azterketa kritikoa lotzeak bide osagarriak sorraz ditzake, indarkeria deslegitimatzeko laguntzeko.

- Aipatutako indargune horiek kontzientzia historikoaren garapenaren ikuspegiaren berezko estrategia pedagogikoetan daude oinarrituta; horrek aukera ematen du iraganari buruzko ezagutzak eta azalpenak helarazteko belaunaldi berriei, iragana orainalditik eta hari buruz dituzten galderetatik eta beharretatik bereizi gabe; hau da, memoria eta historia lotuz, eta azalpen historikoa indarkeriaren eta hark orainean eta etorkizunean eragiten dituen ondorioen bidegabekeriari buruzko gogoeta etikotik bereizi gabe. Izan ere, hezkuntza historikoaren xedea da fenomeno historikoen konplexutasuna ulertzen laguntzea eta haien irakurketa sinplifikaturik ez egitea.
- Parte-hartzaileekin izandako elkarrizketetan, ikusi genuen interes berezia zutela gai jakin batuetan, eta, beraz, garrantzitsua izango litzateke hezkuntza-materialetan horiek lantzea: abertzaletasunaren eta ezkerren arteko tentsioak ETaren eta Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduaren baitan; egiturazko indarkeriaren testuinguruetan indarkeria deslegitimatzeko zailtasunak; eta zer erlazio historiko izan diren, alde batetik, ezker orokorraren eta indarkeriaren artean, eta, bestetik, ETaren eta abertzaletasun moderatuaren artean.

- Ikasleek aipatutako gaien artetik, arreta berezia merezi du honako honek: euskal kasua nazioarteko beste batzuekin alderatzea, egiturazko indarkeriaren osagai sendoa dutenekin, hala nola Irlandako, Palestinako eta Kolonbiako kasuekin. Etorkizuneko hezkuntza-materialek kasu batzuen eta besteen arteko desberdintasunak ulertarazten lagundu beharko lukete, indarkeria legitimatzeko joera duten parekatze bidegaberik ez egiteko. Adibidez, euskal kasua sakonki aztertzeke, kontuan hartu beharko litzateke zenbateraino gauden zenbaitek «ongizatearen terrorismo» esan dioten horren aurrean; izan ere, eredu hori ezin da aplikatu aipatutako beste kasu horiekin.
- Aztertzen diren kasu guztietan, baita euskal kasuan ere, garrantzitsua da kritikoki sakontzea nazio-estatuen eraikuntza-prozesuekin lotutako egiturazko indarkeriaren osagai historikoetan, prozesu horietan indarkeria ugari egon izan baita beti. Horregatik, garrantzitsua da, halaber, nazio espainolaren eraikuntzaren kontakizun esentzialista deseraikitzea, Errege-erregina *Katolikoekin*, Errekonkistarekin, Inperioarekin eta Gerra Zibilarekin lotzen dena, horrek indarkeriaren erabilera justifikatzeko joera baitakar.

Aurreko ondorioak partzialak eta behin-behinekoak dira, eta saiakuntza-izaera dute. Hortaz, gure ikerketaren ondorengo faseetan horiek zehaztu, zabaldu eta finkatu beharko dira.

Memoriari, Hezkuntza Historikoari eta Bakearen Eraikuntzari buruzko koadernoak

Memoriari, Hezkuntza Historikoari eta Bakearen Eraikuntzari buruzko koadernoak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Giza Eskubide, Birkidatza
eta Lanbidearen Itasuntza Nagusia
Bikimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

PRESIDENCIA
Secretaría General de Derechos Humanos,
Convivencia y Cooperación
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos



Euskadiko
Gazterien
Kontseilua

Consejo de
la Juventud
de Euskadi